







H-8910  
R-36346

SENAR EMAZTE

ATV  
18.858

# SANTUAC.

Necazari ezcondu , ta bente guciac, lur-  
rean ceruco bicitza eguiteco Ispillu  
eder biciac:

S. Isidro Achurlari , ta bere Emazte  
Santa Mariaren Bicitza , Virtuteac,  
eta Milagroac.

Valmedianoco Marquesa Andre , Doña  
Maria Micaela Idiaquez , Xavier , ta Lo-  
yola chitez Ilustreari , eta onen Escu-  
Onguilleetatic gure Necazariari beren sal-  
uacioraco Jesus-en Compañiaco Aita  
Agustin Cardaberaz-ec emanac.

1766.en



Urtean.

BEAR BEZALA:

Iruñean: Libruguille Antonio Castilla-  
ren Echean.

REVISED

# SYNOPSIS

The following is a summary of the main points discussed in the report. It covers the objectives, methodology, results, and conclusions of the study. The data indicates a significant correlation between the variables analyzed, suggesting that the proposed model is effective in predicting the outcomes. Further research is recommended to explore the underlying mechanisms and to validate the findings in a larger, more diverse sample.



Toledoco Arzobispo Cardenalac, eta  
jzuneco Obispoac eman dituzte 140.  
eguneco indulgenciac Aita gureta Ave  
Maxi bacoitza gar:





*S. Maxia de la Cabeza.*

*Beste 140. egunecoac beste Aita  
gure ta Ave Mari bacoitzagaric.*





St. John the Evangelist  
The Evangelist of the Gospel



# SARRERA.

**N**Ere Jaungoico, zure obra gucietan Santua. Gauza on gucia zurea da, eta doai ondo eguin gucia zugandic dator. Zuc Santuen marabillac escribitzea, aguintzen didazu. Zure gloriaraco izan dedin, aguintzen didazuna, indazu. Zuc daquizu ondo, eta Zu bacarric Testigu ona cera, nere buruz, edo naiez eguitemeco au artzen eztedala. Escribitzen nagoen lecu onetan, zure lecuanguretzac dagoenac, edo aren aotic Zuc au aguintdu cinidan. Ala zure naja, edo esana eguitemeco zure gracia betor. Zure esua indazu nereca ondo gobetnatzeco; eta zure vorondatea onetan, da nere gauza gucietan, bear bezala, orañ da beti eguitemeco. Munduaren asieratic zure obrac ali nai ditut.

## LENENGO §a.

SANTUEN BERRI ONAC, ETA ATSEGUIN  
*andioaci.*

1 **M**Undu au ecerecetic eguin baño  
 len, gure Criadorea criaturaric  
 bateregabe, bera bacarric beregan cegoen,  
 orañ beceñ glorioso, poderoso, jaquinu,  
 aberats, eder da Santua. Fedecac ala eracaf-  
 ten digu: iñoren, da eceren bearric etzu-  
 en: ta beti onela da, izandu da, ta izan-  
 go da beregan. Baña Jaunac berac bere  
 poderioa eracutsi nai zuelaco, eta berac  
 ciequien demboran, bere vorõdate, edo  
 itz bacarraz ecerecetic mundua, ta emen  
 diran gauzac, David Santuac dion bezala,  
 eguin cituen. Berac nai, ta efan: eta  
 ceruac eta larra beren apañdura guztia-  
 quin eguiñic aguertu ciran. Ala dio fe-  
 decac, eta sinisten degu.

2 Criaturaric señalatuenac Aingue-  
 rua, ta Guizona eguin cituen: Aingue-  
 ruac ceruan, da Guizona lurtean. Aingue-  
 ruac dira Espiritu uts, nasgabe, garbi  
 ederrac, gucziz poderoso, jaquinu, ta  
 doaciez bereac. Guizona da Gorputz ta  
 Anima, graciaz Jaunac bere antzera egui-  
 ña.

ña. Aingueruac ecin contatu ala dira, eta guztia batetan eguin cituen. *Certa fide credendum est &c.* Fede ciertoaz finistu bearda, munduaren alieran Jaincoac eguin cituela Criatura Espiritualac, edo Aingueruac, eta gorputzezco, edo corporalac, eta munduac. Ala eracusten du Concilio Lateranense, Inocencio irugarrenaren demboran eguin izandu zana. Auilustraetic zuc ondo jaquiteco: eta criaturen Berri onac aditzeco, jaquizu:

3 Aingueruac iru Gerarqui, ta be-deratzi Coruetan dirala: Aurrenti, edo altuenac, erdicoac, eta becoac. Bean paratu cituen Aingueruac, Arcangel, da Principaduac: Erdian Potestadeac, Virtuteac, ta Dominacioac: Goienean Tro-  
noac, Querubin, da Serafiñac. Baña beren vorondate, edo soberbiaz Aingueruen iru parteetic bat puntu artan bertan betico galdu zan. Pecatuac eguia, ta infernura ciran Aingueruac, andien, edo altueneratic omen ciran. Orduan S. Miguel bitoriosoa, bere Aingueruquin, Jaincoari bere onra gucia eman, da betico glorian sartu zan. Aingueruen Agintari au gure Gobernari Eleiza Santan Jaincoac señalatu zuen: eta S. Miguelec

era beste Aingueruac etfai gaitoen contra gordorzen gaituzte, eta devocio andia zor diegu. Puntu artan bada Lucifer bere lagunaquin infernuetan ondartzan.

4 Adan gure Aita, ta gucien Gurasoa bere elcuz Jaunac eguin, da Paradiu eder atseguiñez betean paratu zuen, nequegabeco bear ariña an eguin, da gorde zezan: Emen Adan lotan cegoela, onen faltetetic Eva gure Ama eguin zuen. Dichazco Paraisu, arc bienzat, eta gurenzat izan bear zuen; bñña laster, edo sei orduren barrenen, dichac galdu, ta deldichac gucienzat irabaci cituzten. Ala icusten degu. Frutu gozo franco libre jateco eman, da Jaincoac batetic bacarnic ez jatea agundu cien, ceren bestela iscociran. Deabruac gure dicha ecin icusi tic arrabiaz, ta guezatez Evaritan cion, Jaquindezco fruta jaten bazuten, Jaincoa bezala izango cirala. Beste gabe jan zuen, da Adan bere Senarrari janerazo cion. Bereala beguiac arguitu, ta beren deldicha icusi zuten. Jaincoac contu artu, ta Paraisutic bota cituen; eta pecatu orretatic munduco gaitz guciac etorri izandu dira.

3 Alere Aingueruac beren pecatuac bertan betico galdu cituen ; bada Guizonaz ez : bada Jaincoaren Semea bere misericordia guztiaz, gure senide, gu bezala Guizon eguin zan; eta mundu galdua bere costuric andienean irabazi zuen: eta Aingueruac ceruan utzi cituzten fillac beterzeco, Guizonac beretu, ta Santu-guille bacarra bezala, orieci Santu eguitera etorri zan. Estadu gucietan bere Justicia santificatzeco, ta bere causa justificatzeco beti Santuac eguin ditu : inoicere, ta inoizere aitzaquiari eztu; bada dembora, ta lecu gucietan, Jaunaren antzera, Santu, edo justuac izandu dira, ta izango dira. Jaincoaren escua laburtu ezta.

6 Dotrina au fedecoa bezala da. Orañ Predestinatuen, edo ceruaco elcogituen Dotrina, Eleizac, eta Dotoreac ematen duten guisa efan bear degu. Jesu Cristoe dio, ceruan egoteco filla, jarlecu edo mansio alco dirala : eta S. Pabloe dio, Jaunaren doai, edo graciae era alcotan partitzen dirala. Eleiza Santan, jaltuen bideac banaca dira. Cerua guciac eztijoaz baretic, ezpada bacoitza bete bidetic, Lutretic ceruraño, edo goitic beruraño-

rañoco misteriozco Eicala bat Jacob Santuac icusi zuen, eta Aingutera gora, ta bera cebiltzala: guretzat, edo gugana ja-  
 en, ta gu gora eramateco. Eicala onec  
 malla asco ditu: orietan batzuec dijoaz  
 gorago, besteac berago; baña guztuac,  
 eta baeitza bere bidean cerura.

7 Estadu, edo bide gucietan Santu  
 justuac beti izan dira, ta beti izango di-  
 ra: eta gucietan gure Jaincoa miragarria  
 izan da, ta izango da. Munduco Erreino,  
 Provincia, Erri, ta familietan juttu san-  
 tuac izan dira. Cristau gendeetan familia,  
 edo eche añ desfichaduric ezta, ceñac  
 bereeratic batzuec, edo asco ceruan ez-  
 tituen. Gure Nacazari pobre garbi, ta  
 baleri gende onetatic asco, ta chit asco,  
 edo gucienac, nerequico ceruetan daude,  
 eta aurreta ere salvatu, ta ceruco glorian  
 sartuco dira.

8 Alcha ditzagun bada cerura be-  
 guiac: jaso ditzagun biotzac an gorat-  
 araco eguñac guera, orañ lurrean arras-  
 taca bagabiltza ere. Beguiri ata, ta an  
 gure atabac, gurasoac, tenideac, aideac,  
 quideac, adisquideac icusi, ta ezagutuco  
 ditugu! O cer gloriozco dicha! Cembat  
 auzho gozo chiqui! Cembat Guizon  
 prestu,

prestu, ta Andre garbi justuac an gure beguira daude! Guri diez daude: guri ara igotzen laguntzeco prest daude. Jaina beti alabatzen daude! O cer Bitarteco, ta Lagunac! O cer Jesusen Compañia triunfantea! Ama Virgíña, Aingueru, ta Santuaquin betico gloria bician ala egoitea! Gu orañ gueran, edo gauden guisa, aiec ere dembora batean ceuden, edo emen bici ciran. Etorrico da dembora, ta laster, ceñean Jaincoaren piedadeaz salbatzen baguera, gu insteoc ere, aiec bezala izango, ta glorian betico Jaina alabatzen egongo gueran.

9 Orañ dicha andiz ceruco justu Santuen memoria guc eguiten degu, gure ondorengoac guero gurea orrela eguingo dute. Orañ Santu guciac gure odolco, ezagun, da lagunac Jaincoagan alabatzen ditugu: guero besteac gu orobat alabatuco gaituzte. Ea bada, anima gaiten, aiec lenago emen eguin zurena, guc orañ eguitera: guero aiec orañ duten fruitua, sari, edo coroa guc ere aiequin batean gozatzeco. Jaincoac asco esertzen ezrugu. Berac Santuai casi guztia eman edo eguin cien: guri ere eman, edo eguingo digu. Guztiz aberatza, ta  
guz.



guzuz emallea da: ta guztia eman da ere, beti aberats guelditzen da. Gure vorondare, edo naia laburtzen ezpada, arena ecin laburtuco da. Au icusia dago.

## BIGARREN §a.

*SANTU EDO PREDESTINATUEN ERAIDA ederra, edo ordena ederqui nabartua.*

1 **C**Eruan daudenac Autefi edo Predestinatuac izateco, besteric eguinetzuten, ezpada beren vorondate ona Jaincoari oforo ematea. Cerutar guztien bidea, atea, ta ceruco arearen gultza maifua au izandu zin. Orrezaz ondo baliatzeco, Jaunaren Jaquinde edo Providenciac, justu gucien, da bacoitzaren bideco pausoac zuzendu cituen, ta bearren cituzten graciac chit ugari eman, ciezten. Ezta lurrean estaduric alturic edo bajuric, ceñean justuac izan ezti-ran, eta zure biciera, edo oficiocoac ere asco. Bere oficioz, dana dala, Jaunaren gracia, da arean amorez beteric, biotz garbi santuarequin eguiten duena, Jaincoaren aurtean ori da santu andia.

2 Munduaren asieratic asi gaitean.  
Gui-

Guizon , edo Andrea , ara : Zu santu izateco , Jaincoac Virginia garbien Castidade osoa elcatzen eztizu : elcontzea cillegui da , ta nai badezu libertadea dezu. Adan , da Eva ezconduac ciran , da Santuac dira : oro bat Zacarias , ta Isabel ; Joaquin da Ana. Ermura joan beatic eztezu , ta eremuetan Anacoretenguisa bicitzeric : anciñaco Josef Santua , Samuel , da Erregue David beren Echeetan ill ciran , da Santuac dira. Santu izateco Maifu , edo Dotore andi izatea , edo Libruen gañean burua autsi , edo betuleac erre beatic eztezu : asco da Fedeco Misterioac , eta Mandamentuac ondo gordetzeco jaquitea ; S. Pablo simpleac , S. Juniperoc , ta Hermanoc bezala : orregatic ere Santuac dira.

3 Predestinatu guztien Burua Jesu Cristo da , ta Santnen Contu dichosoa , ta Lista ederra Jaunagandic asi bear da. Munduco Egercicio , edo Oficioric altuena Cristoren Vicario izatea da , edo Erromaco Aita Santua : eta Ceruco Dignidade , Puesto , edo Silla onetan S. Pedroren ondoren Santu chit asco izandira ? Cardenal , Obispo , ta Sacerdote Santuac norc conta dirzaque ? Erraz ezta.

Guero lurrean Puesto, ta Lecuric andi-  
 ena dutenac Emperadoreac, Erregueac,  
 Principe, ta Aguintariac dira: oien artean  
 S. Enrique, ta bere Coñado S. Esteban:  
 gure S. Fernando, S. Ermenegildo, San  
 Luis, ta beste chit asco Santuac dira.  
 Palacioetaco Oficio guztietan itacurten  
 nago Santuac. Campoetan, guerretan da  
 paquean, armetan, da justician, orañ  
 icusten nago cembat Capitan, da Solda-  
 du andi: cembat Aguintari, Consejero,  
 ta Gobernari. Jaureguietacoac utzi nai  
 ditut, ta besteetara noa.

4 Soldaduen artean S. Eustaquio, S.  
 Sebastian, da S. Marcelo gurea bere ama-  
 bi semeaquin, Soldadu balienteac San-  
 tuac ciran: oiec, eta beste asco onra ta  
 puesto altuetatic cerura igo ciran. Baña  
 goietatic beerrata jachi gaiten. Cer ofi-  
 cio altuagoric oriec baño; ta cer bajna-  
 goric urteangoac baño. Cale loiac, ta ci-  
 quñiac garbitzea: ero andi, defontagar-  
 ri, edo comedianta izatea: eralle, edo  
 borrero billau izatea baño? Bada Eger-  
 cicio orietan ere, S. Erineo calegarbitza-  
 llea: S. Ciriaco, ta S. Estratormio, bor-  
 reroac; ta S. Porfirio, ta S. Ginès Co-  
 medianta Santuac izan ciran.

3 Anima condenatzeco non peligro  
 gueiago, Tribunaletan baño? Alere Jue-  
 zen, Letraduen, Eſcribaben, Procurado-  
 reen, da beſteen oficio artuſcatuan, Jain-  
 coac Santuac eguin ditu: S. Ereberto, ta  
 Sto. Thomàs Cancillerac, S. Geroteo, ta  
 S. Dionifio Senadoreac: S. Pudente, ta  
 S. Apolonio Conſejariac: S. Anaſtaſio,  
 ta S. Ferreolo, gaitzquilleen Juezac: S.  
 Cipriano, ta S. Ambrotio Letraduac: S.  
 Sergio, ta S. Ginès Eſcribabac: S. Ful-  
 gencio acienden Procuradorea: S. Apro-  
 niano, ta S. Baſilides Alguacilac, edo  
 Corcheteac. Medicu, ta Oſaguilleen ar-  
 tean, S. Coſme, ta S. Damian, da beſte  
 alco: Sto. Thome Danchi Boticariora.

6 S. Pabloc dio, pecatu guenea iuſ-  
 traia codicia dala: ta ſaleroſi, tratu, ta  
 mercatarien irabaci nai on, ta orren iuſ-  
 traia bitorzetan añ ſartuac, edo joſiac  
 badaude ere, Mercatarien artean Santu  
 andiac dira S. Fulgencio, ta S. Guido bar,  
 eta S. Firmencio biac; eta beſte alco.  
 Eta peligrozco oficio orietan, da Santu-  
 gaien talleretic edo bidetic añ urriti co-  
 biltzanac Santu añ andiac irten, bacitan:  
 Necazari garbien egercicio, ta oficioetan  
 cer izango da? Nequea, ta bearra vi-

ruteen lagun , ta adisquide oi dira : eta malicia , edo gaitz guztien ecarle alperqueria beregandic aienatzen dute.

7 Ea , bada , Necazari prestuac : laster eguizute : zuena da cerua. Animo: Santuac izan bear dezute. Jaincoac alainai du , ta betac gracia emango du. Beguira , nola zuen nequezco biciera pobrean bezala , Santoric preciosoenac izandu ciran. Zori oneco Bearguille orientean , Familia sagraduari , edo JESUS, MARIA , ta JOSERI beguira ondo. Santu guztien artean dichosoena , San JOSEF gloriofoa Necazaria izandu zan : Jaincoaren Semeari , ta Amari bere escuaz lana eguin bicitzeco janaria , ta bear zutena itabazi zuen ! O dichazco nequea ! O cer bearraren saria , ta gloria bicia duen orañ !

8 Ama Virgüña jostun eder bearguillea izanzan , da bere escu preciosoaquin Tunicacho inconsutil , edo putcagabea bere Semechoari eguin , ta ill arteraño-co janci cion. JESUS divino gucien Santuguillea , ta bere escuz mundua fabricatu zuen Maisua , Necazariaz lotatu ezan : Gurutze Santuarequin antzic , edo simparianic guciena zuen egercicioan Ai-

ta S. Joseri laguntzen, berac, bestec ez bezala, bearra eguiten zuen. Apostolo Santuac Necazariac, eta Arranzaleac ciran : S. Pedro, munduco Erreino guttien, ta Ceruco Guilzari, Jabe, ta Jaurna, ala zan. S. Pablo bere escuetaco bearraz bici zalaco gloriatzen da. Goacen orañ zuen bacoizaren oficio jaquinetao Santuetara.

9 S. Jacobo Zurguin, edo Arotza zan : S. Proculo Arguina : S. Sinforiano Escultorea : S. Pablo Elatico Tornularia : S. Floro Cerratzallea : S. Eligio Urteguillea : S. Andronico Cillarguillea. S. Duntano Errementaria : S. Homobono Dendaria : S. Crispin Zapataria. S. Onufrio Eulea : S. Goalsfundo Oquina : S. Joan de Dios Libringuillea. S. Mauricio Ortelanoa : S. Paulino Jardineroa. S. Leonardo Artzaia : S. Aldenio Unaia : S. Arnoldo Mariñela : S. Putenio Arranzalea : S. Ricardo Gurdiguillea : S. Adriano Correoa : S. Guillelmo Errotaria : S. Alejandro Icazqui : S. Geminiano Tabernaria. S. Quilberto Cocinaria : San Eustacio Epallea. Oriñen la beste orrelaco eluetaco Santu andien artean, alco Eustacio Caballero, ta Jaun-ehit aberatua, ta

rez , aci , ta Santu Bearguilleac eguin  
ciran.

10 Orra consueloa franco. Andreen  
artean Santa jastun , da gorulariac , ta bes-  
te Bearguille asco orobat izandu ciran:  
eta orra zuc arguiro icusi , len etan de-  
guna : Ceruco Eicala malletan , Santuac,  
bacoitza bere oficioan , nola cerura igo-  
teen ditau Lurreco neque , ta beargai-  
cietan , añ baju , edo loirie ezta , ceña  
fede onaz , ta biotz garbiaz eguiten bada  
Santuac ematen eztatuen. Orañ ere San-  
tugai , edo justu tantu asco dira mundu  
gaito onetan : eta bicimodu gucietan,  
Jaincoac bere Adisquide maite asco , be-  
ra seruitceco dauzca lurrean , guero beti  
bera alabatzeo ceruan. Zu , ta ni glo-  
riaaitaraco orañ ondo bici gaiten. Amen.

## IRUGARREN §a.

S. ISIDRO ACHURLARIAREN BICITZA , TA  
*Virtuteac.*

**J**Aunaren milla ta sei can, da oguei  
ta bigarren Urtean , Marzoaren  
amabigarren egunean Erroma Erroma  
dan ezquero, ta munduac Ezeiza Santã icusi  
duen gloriac andienetatic bat icusi zuen.

Ga-

Gure Españac paregabeco , ta onra chit andico gauza asco icusi ditu ; baña guchi, bearbada , gloria , ta atleguin andiagocoric egun ori baño. Gregorio Amabofgarrena , Erromaco Aita Santu urte bi, ta bost illa betean izan zan ; baña Aita Santu guchic , onec bezalaco dicharic egun batean icusi zuen. Cer consuelo , ta alegria gozoagoric arenzat , eta guretzat, bost Santu guztic miragarriac , ta orieta tic lau Españolac , solemnidade , ta gloriaric andiencan , ta egun batean cano nizatzea baño ? Cer ceruco devocio , ta atleguñarequin bost Santuen onran eguin zan Oracio berri ederra , lenengo Jaincoaren alabantzan Aita Santuac cantatuco zuen ?

2. Marabillazco Santu oiec citan San Isidro Achurlaria , Aita S. Ignacio , San Francisco Xabier , Ama Sta. Terela , ta S. Felipe Neri : au Oratorioco Fundadore gloriofoa : Jesus en Biotzeco Eipota maite Virginiñen artean , Carmengo Lore eder , Andre gucien joiaric preciatuena , Sta. Teresa , bere Religioaren Fundadora : A. S. Ignacio gure Jesusen Compañiaco Fundadorea : Mundu berrico , edo Indietaco Apostolo Xavier milagrosoa : ta



S. Isidro Achurlaria , Madrid coroatuaren Gloriatic andiena. Jaincoaren Jaquinde altu ta ezcuratuena onetan ondo aguertzen da; bada Erreguericandienaren , edo Mundu bietaco Jaberic aberatsenaren Cortean, Isidro Achurlari pobre umilla , Erregueen Patroi poderoso , ta Amparo segurua Jaincoac paratu da , oriec beren Coroa , ta Magestade guztia Isidroren oñetan devocioric umillenarequin Jaincoari emateco , ta Santa Santu precioso onen bitartez , elcatzen duten gucia , oi dan bezala , alcanzatzeco. Mirarizco Santu onen Bicitza asi dezagun.

3 Aita Daniel Papebroquio gureac Amberesco bere Lagun guciz jaquinsuaquin, estudio , ta neque gogorraquin Eleiza Santaren eguitecoric andiena , edo Santu gucien Bicitzac eguiatz , edo aldan arguiroena ematen dituzte. Jaincoaren gloriaco , ta Santuen onta andieneco obra da au. Aita Daniel onec , S. Isidro Confessore guztiz gloriosoaren, Bicitza atera zuen : eta onec dacar , edo ematen dit , nic gure Eusqueran ori emateco bear dan argui guztia. Canonizatioco Procesoetatic Joan Diaconoc, A. Jaime Bleda , Religioso Dominico , piedade , ta contu andico Autoreetatic , Antuerpiaco gure Padreac ari zuten , da nic orietatic.

4 Consueloa da, Santuen Gurafoac, jaiotza, non, da noiz, orien aciera, ta beste orrelacoac ondo jaquitea. Baña gure ala beartez gauza orien arrastoric ere garbiro ecin atera degu. Seiuen urtera dihoa, Joan Diaconoac San Isidroren Bicitza atera zuela, baña noiz cierto eztaquigu. A. Papebroquioc contu segurua ateratzen du, Santua ascoz lenago ill zala. Madriden jaio, ta bici izan zala Santua, gauza jaquiña da. Zorioneco onen Gurafoac norzuec ciran eztaquigu. Inondic ere, Jaincozco Aita, ta Amacituen; bada Arbola onac bezala, alaco Isidroren frutu elcogitu preciofoa ceruraco eman, da piedade gucian acizuten.

5 San Andresco Parroquian bateatu zan, da lenengo graciarequin Isidroren Iena Bateoan eman cioten. Doai berdina, edo doaietan berdina Isidro elan naidu, eta aurrari ederqui ceterquion: bada gracia, doai, ta virtutetan, Jaiuac berac, ta bere gustora chit berdin, edo igoala eguin zuen. Santuaren mirarizco Bicitza lucetic erraz, ta claru icusten da, nola, ta ceñ contu andiaz onen Gurafo piadofoc beren Seme, edo doai-

iezco Isidro ceruraco Santugaiari bezala,  
beguiratu cioten, Jaincoaten bildurrez-  
co Gurafoac umeen dicharic andiena di-  
ra: gucienean Aita, ta Ama nolacoac,  
Seme ta Alabac alacoac. Cristau aciera  
ona, ondasunic, aciendaric edo doteric  
onena da. S. Isidro, Gurafo pobreen Semea  
bazan ere, eguia au ondo eracutsi zuen.

6. Santu gai andia chiquitatic Isidro  
izan zan, ta orren señale ederrac berea-  
la eman cituen: inclinacio chit onetacoa,  
chit egoquia, chit umilla zan: guztien-  
zat maitagarria, ta ala guztiaac maite  
zutena, Joan Diaconoac dion bezala.  
Jaincoac beretzat autensia, edo escogi-  
tua ceucan, ta bera bacarric obeto fer-  
bitzeco, ta amatzeco, aren vorondarca  
gucian eguitea beti billatzen zuen. Infer-  
nutic bezala, lagun gaistoetatic igues oi  
cebillen: onequin ez artu, ta ez ema-  
nic: joco, trabesura, ta bulletan baño,  
bere bacarrean Jaincoarequin obeto ar-  
quitzen zan: eta nola virtute guztietara-  
co jaitoa bezala ceruac Isidro prestatu zuen:  
onec bere biotz garbi, manso, paquet-  
tua, Jaunaren argui, ta deiac amore onez  
artzeco, beti prest ceucan.

7. Bere anima santa peligro gucieta-  
tic

tic libratzeco , sagradu segurura bereala  
 biurtu zan , ta Eleizaraco bidea icasi zuen.  
 Gaztetatic bere inclinacio , ta devocio  
 gucia Eleizan , bere ceru , edo toquian  
 bezala , Jaincoa arquizeco billatzen zuen.  
 Eleizan beti , edo al zuen gucian bere  
 Jauh , da Jabe bacarra biotz guztic ado-  
 ratzen zuen , eta orretan gau , ta egun,  
 edo beti egon naizukean : eta nola Is-  
 dro Jaincoari añ oforo emana cegoen:  
 onec Oracioan , Doctrina , ta Sermoietan  
 bere itz divinoa enzuteco , gogo , devo-  
 cio , ta naiera gozo , ta egunoro bicia-  
 goa ematen cion. Gure Fede , Religio-  
 co Misterio altu , ta Escritura sagraduco  
 argui andiac Eleizan , artu eta justicia , edo  
 santidadearen eguiazco gose , egarri an-  
 diagoa artzen zuen : eta Libruetan baño  
 ere Doctrina altuago , ta errazago bear  
 zuen gucia icasten zuen. Espiritu Santuac  
 Eleizan Isidroren espiritua bere lecio , ta  
 doai guciac betetzen zuen , bera ezagu-  
 tu , ta amatzeco.

## LAUGARREN §2.

S. ISIDROREN POBREZA , TA UMILDADIA.

**G**uraso pobreen umea bezala,  
 Santua pobrea zan ; baña chir

ondo acia, ta ondastun guztien Jabe emalleac beretzat señalatua. Guizon gazte zala, ta ecertacoa, bere ceruco arguien artean icusi, ta ezagutu zuen, bere neque, ta bearrarequin bicia atera bear zuela. Orretaraco saiatu bear zuen; eta Adan gucien Gurasoac, Jaincoaren aotic aditu zuen sententia: ZURE ARPEGUICO ICERDIAZ OGUIA JANGO DEZU; Isidro beretzat artu zuen; eta oficio, edo beargai guztien, ta concienziaco peligroen artean seguruago jokatzecco, nequezcoena, baña garbiena beretzat escogitu zuen, eta Jaunaren graciarequin Achurlari nai izan zuen.

2 Au da munduac bere asieratic aurreneco icasi, ta icusi zuen oficioa. Adan Santua Achurlari Jaincoac eguin zuen. Achurlarien anciñatafun, da dignidadea, Guizonaquin batean munduan izan zan. Noblezia guztiaren fustrai, asiera, ta burua gure Aita Adan izandu da. Aren Semé Santuac, Abél, Set, Noé, Sen, Abraan, Isac, Jacob, ta beste Guizon presitu Santuenac, eta Israelgo gende escogitu guciac, Erreguea Jaincoati escatu arteraño, Achurlariac izandu ciran. Erromaren Fundadore Romulo, ta Remo

Achur-

Achurlariac; Fabioac, Lentuloac, Diocleciano, ta Magfimiano Emperadoreac, ta anciñaco beste Erregue, ta Aguintari asco Achurlariac: Erromaco Aita Santu Silvestre, Silverio, Adriano, ta beste asco Achurlarien Semeac izandu ciran.

3 Orra ceñ onra andico gauza dan Achurlari izatea. Onra pobre, baña lenengo, ta garbien au Ifidroac bere bici-moduraco artu zuen. Bearrac, eta pobre izatea justu izateco asco laguntzen du: bada deabruen lazo ascoratic, ta munduco peligro ero, ta banidade itfu ascoratic anima libratzen du: eta virtute gucien eguiaczo Maifu divinoaren antzera, batezere umildadean berari jarraitzeco, asco balio du. S. Ifidrogan au guertatu, chit claru icusi zan: chitez umilla zan, eta umildade onec fedeaz aren biotzean guciz barrera ondeatu zuen, da sultraiguciz lendoac ezarri cituen: emendic virtute guztiaquin Santidadenic altuenera, ta cerueo gloriara añ seguru, ta ederqui igozan.

4 Bere biotz umillean, Jaincoaren doai, edo argui claruaz espirituco pobreza, joia guciz preciofoa zala ezaguru, ta obeto estimatu zuen. Bacecu zan, Jesus

Erre-

Erregue ondafun guztien Jabeac Pobreza espiritual au jaio zanetic betico bere lagun mairea izandu zuela : eta S. Pabloc eracusten diguna : „ Cer jan , da cer jan „ ci degula , contentu izan gaitela : „ eta S. Agustinec diona : „ Guchiren bear „ izatea obe da , atcoren jabe izatea ba „ ño. Bere icerdiaquin Jaincoac ematen cionatequin Isidro beti contentu zan. Jainac obeto daqui : eta are ematen dizunaz zu contentu ezpacera , zue naieñ dezuna iduqui ta ere , beñere contentu izango eztera. Pobreac aberats , ta aberatsac aberatsago izan nai oi du : ta gucienean pobreen , aberatsen , da zure gaitz gucia , S. Pabloc dionez , eragabeco de seo orietan dago : zure anima oieci beti tormentuan daucate. S. Isidro pobrearen egemplo , ta ispillu bician beguira zaitez ondo , ta arguio icusi ezazu bere bearean ondo luzaro bicitzeco , cer faltatu citzaion seculan lurrean ? Zure guisaco de seoen tormenturic aren biotzac ez oi zuen : ari jarrai zaiozu , eta Jaincoac nai duen artean , contentu , ta obeto aren guisa bicico cera zu.

5. Santua gauza guchitan munduaren bear izan zan , ta orregatic munduco  
abe-

aberats, ta andi naiac baño dichofoago  
 zan. Jan edanean chit beguiratua, ta ur-  
 rijalea zan: eta pobreza umill, ta mira-  
 rizo abstinencia onequin, lurreco grña  
 gaitoen arteric, aren biotza lafter ariñ  
 cerura igo zan. Gucioi eracuti cigun,  
 animaco arazo, edo defeo oriec quendi  
 ezquero, ceruco libertade oloan, virtu-  
 te gucietan chit erraz aurretatzen dala.  
 Eleizaco Maisuac Escritura Sagradutic era-  
 custen dutena au da: ta ceruco argui, ta  
 lecioaquin Isidro or chit ederqui icasi,  
 ta gorde zuen: eta zu, Achurlari, edo  
 Necazaria, zure obretan ori eguita, San-  
 tuac naien du: aren pobreza umill one-  
 tan, da confianza oloan, Jaincoac eguin-  
 cituen maravilla andic, zure confuelora-  
 co guero cfango ditugu.

## BOSTGARREN §a.

S. ISIDROREN, DA SANTA MARIAREN  
 EZLONITZA.

I **E** San degun aciera Santuan San  
 Isidro aurretatu, ta Achur-  
 lari eguin zan. Bere bearrean saiatzeco,  
 Madridco Errian, Iban, edo Joan de  
 Bargas



Bargas ceritzan Jaun baten Baserri, edo Quinta bat bere loro, ta lurraquin, bere contura, urtean onembestean aru zuen: eta ordutic Ifidroren fabore ceruco mirari andiac icusciran. Ifidro Guizon gazte, bearguille egoqui ta contentuzcoazan; baina bacarra, ta bere bacarrean neque andia zuen: da Jaincoac Adangure Aitari Eva bezala, Ifidron lagun, edo Emazte santa bearzan bezalacoa, bere elcutic eman cion. Au Santa Maria izandu zan, señaren Bicitza laburcho bat guero emango degun. Bearra Ifidroc obeto eguin zezan, Echecho beargaietan Santa cegoela, diotenez, Nagusiac ceruco Ezcontza au nai, ta eguin zuen.

2 Santa Maria serbitzen cegoen, ta bear bada Nagusi orren Echean: eta nola prenda chit escogituac, bere edertasun famatuan, da are gueiago bere santidadean cituen, Ifidro estimatzen zuten lagunac, Santa arenzat nai zuten. Jaincoaren vorondatea ala zalaco, biac Santuac bezala ezconzeco, confesatu, ta comulgatu ciran: eta fede, ta devocioguciaz Matrimonioco Sacramentua, Eleizac aguintzen duen bezala, artu zuten. Madriden desposatu, edo ezcondu cirana, gauza

gauza ciertoa da. Eztaiaac garburo eguin,  
ta Isidro, ta Sta Maria Nagusiaren Ba-  
ferri, edo Caramanchela joan ciran. Be-  
ren treinac eraman, da beren pobrezan  
Echea garburo maneatu zuten: onen con-  
tua Santac, era aciendatu cobru ematea  
S. Isidroac artu zuten.

3 Pobreak baciran ere, aberats asco  
baño contentuago, ta obequi ta chit ar-  
monia ederreac bici ciran: zutenetic abe-  
rats ascoc baño pobreaki limosna gueiago  
eguiten cien. Nola Ama Virgñaren de-  
vocio añ andia beren biotzetan zuten,  
conciertoa biac eguin zuten, asteoro e-  
gun bat, zapatu, edo Larumbata artu  
zuten, Ama Santisimaren icenean po-  
breai beren eltze edo lapicoa eguiteco.  
Biac santuac ciran, da cerutarren guisa,  
paquezco biciera, edo cerucoa lurrean  
eguiten zuten. Jaincoac nai duen bezala  
batac bestea estimatzen, ta amatzen zu-  
ten. Orretaco demboragen buruan ben-  
diciozco frutu, edo seme bat Jaunac  
eman cien, eta Joan, Nagusiaren er-  
respetoz semeari Joan icena eman cioten:  
contu, ta amoriozco devocio andiaz be-  
ren ori aci zuten: era onequin guetatu  
zan Guraso santuac eguin zuten milagro  
andi au.

4 Mutilcho inocentea , ala bearrez, ta ustegabe pozuan erori , ta ito zan. Amac ura icusi zuenean , bere entraña piadoso , ta biotzeco penaz beteric negarrari eman cion. Ifidro orduan campotic cetorren : semea ito zalaço arren negarrac aditu , ta nola añ amorosoa zan , chit aguitz lastimatu zan , da esan cion : Ea fede osoaz belaunicatu , ta Jaunari esca diozagun , gure semea biciric digula. Santuac oracioan ceudela , orra non , putzco tira mirari andiaz , ta goraño aciaz igozzen icusi zuten : ur gañean seme ori biciric artu , ta milagro , edo favore andi onegatic biac Jaincoari milla biotzeco esquet eman ciozcaten.

5 Onetan , da esango diran Milagroetan Ifidroren fede bici , ta Jaincoagan ceucan guzrizco confianza ondo icusté da : beraren Adilquide maiteac bezala , escatzzen zuen gucia , alcanzatzzen zuen : Espiritu Santuac gobernatuic , ondo ciequien nori , ta nola escatu : Ifidroren anima garbiac gau ta egun Jaunaren Legge santua gogotic gorde nai zuen : bere estadu pobrean egunoro obeto bicit-zeco , bearren cituen argui ta gracia escatzzen ciozcan , eta Jaunaren ontalunac beti  
la-

laguntzen cion. Bere echeco lanac eta cam-  
poetaco bearrac Sta. Mariarequin batean  
ederqui errepertitu, eta biac ceruco Ain-  
gueruen bicitza lurtean eguiten zuten.  
Orañ obeto ori icusico dezu.

## SEIGARREN §a.

## SAN ISIDROREN PIEDADE

## ta Devocion.

**P**iedadea dio San Ambrosioac, Virtu-  
te gucien cimendu, edo asiera dala; eta  
Devocion, Santuac berac dio, Virtuteen  
Ama dala. Ama onen bular gozoan Isi-  
dro aci zan guciz piadoso, ta devotoa,  
Onetaraco jaioa bezala chiquitatic seña-  
latu zan; eta guizon eguin, da bere pie-  
dadean bentaja andiaquin beti aurreratu  
zan. Onen biotzeco piedade zabala, ala  
bere Criadorea requico, nola Criatura guz-  
tiaquico, guizon, da choriaquico ere ba-  
zan. Jaincoa serbitzeco, ta guztiai al zuen  
ona eguiteco Santua mundura etorri zan,  
Necazatic artean nor Isidro bezen pi-  
doloric? Nor Isidro bezen devotonic? Jain-  
coarequico piedadean aren biotza, ceruco  
incensu gozobatean guita beti urtutzen  
cegoen.

2 Beré Egercicioetaco ordnac gazte-

tatic

tañic chit egoquiro artu, ta cumplitu ci-  
 tuen. Lenengo egunoro chit goiz jaiqui,  
 ra uda, ta negu, aren lendabicico arre-  
 ra, ta paufoac ciran, bide lucea bazan ere,  
 Madridco Eleizac ibiltzea, ta Meza San-  
 tuac ceruco fede bici, ta devocioric an-  
 dienaz enzutea. Bere Temploan bezala,  
 Jauna an adoratzan zuen: bere biotza  
 osofo eman da, bere suavidade, ta amo-  
 rez Isidro guztia deseguiten zan. Jesu-  
 Cristoren Pasioico Misterio, ta amozco,  
 ta dolozco Paufo guciac nola Me-  
 za Santuan biciro berritotzen diran, on-  
 dogabeco ichaso onetan Isidroren anima  
 sartzenzan, eta amoriozco ituri bat eguñic,  
 bere Jaunaren negarrezco doaiarequin za-  
 na urtutzen zan: eta au zan aren devo-  
 cioric andiena, eta guero Ama Virgíña-  
 ren amorioa.

3 Necazari prestua, emen aterezazu  
 contua, cer neque, edo penitencia go-  
 gorta zan Isidro goizoro, uda, ta ne-  
 gu, otz, ta ta bere, ta each andia-  
 quin, orrela Eleizetara joatea, ta an lu-  
 zaro Jaunaren Misterioetan egon, da  
 guero bearrera joatea. Baña Isidro dicho-  
 soaren espirituco balentia otrenbat baño  
 balienteagoa zan: eta Jaincoaren, da be-

re Ama Santifimaren amorioa divinoac  
 ariñ ibiltceco egoac, ta Eleizan echizatu-  
 rie luzaro egoteco indarrac ematen cioz-  
 can. Ala zuri ere emango dizquitza Jain-  
 coac. Atochaco Ama Virginiaren, orduan  
 ere bai, ta orañ are gueiago devocio an-  
 dico Santuarioa aren lenengo oracio lu-  
 cea zan: andic Eleiza asco, ta Almude-  
 naco, orañ Madridco Ama Virginiaren  
 Eleiza Nagusiena, ta azquenic S. Andres-  
 co bere Parroquia artuac cituen.

4. Gucietan luzaro, ta ceruco Santu  
 bat bezala Mezac enzuten, da oracioa  
 eguiten beregan sartu, ta sofegu devocioan  
 egon oi zan. Ama Virginiaren amorez,  
 Jesusen penetan bezala Isidroren biotza  
 negarrez urtutzen zan. Autoreac diote-  
 nez egunaren gueiena, edo gucia, beat-  
 rean ere, onetan gastatzen zuen; baña  
 Eleizan chit luzaro, ta sofegu suabean  
 dembora igarotzen citzaion. Ori ascoc ietu-  
 sia, ta jaquiña zan. Arrobaruric, corde-  
 gabe ascotan bere Jabearen biotz maitean  
 sarturic arquitzen zan: eta ori milagro  
 ezta, Santuac cituen ceruco erregaloa-  
 quin.

5. Devocio guztien Eguzquia Meza-  
 co Sacrificio divinoa da. Eleiza Santaren

Eger-

Egercicioen artean, izarren artean Eguz-  
 quia bezala, da Meza. Onec beste izar,  
 edo devocioai, oiec duren arguitasun eder-  
 ra ematen die. Efan al baño gueiago, dio-  
 te Autoreac, Ifidro Mezaco Sacrificioan  
 Jauaac señalatu zuen. Diote, ceruco ar-  
 gui ta devocioac beregandic atera oi zue-  
 la: eta Aldareco Sacerdote bacoitzaren  
 biotz, edo espirituan Ifidro zan gucia sar-  
 tzen zala? Onec Meza santuan izan ci-  
 tuen favore divinoac norc efan ditzaque?  
 Gueienac Santuaren biotz humillac on-  
 do gorde cituen! Ah Necazari pobrea!  
 Zuc ala zure Jaincoa goicetic billatzen  
 bacendu; ta arc bezala fede bici, ta in-  
 tencio garbia, lurreco gauceratic librea  
 bacendu, seguru nago, Mezatan zure  
 espirituac, arenac bezala, ceruco erre-  
 galo andiac artuco lituqueala!

6 Ama Virgñaren, Aingueru, ta  
 Santuen beste errezo, ta devocioetan Ifi-  
 dro herbera beti, edo beti bat zan. Gu-  
 cia ceritzan guchi; eta orregatic luzaro  
 oi cegoen, ta gueiago egon naizuquean.  
 Ceruco egarri biciaz bici zan. Arc alaco  
 cerutarren ezrizco consueloac artzen ci-  
 tuen: oriec Mezatan gueiago ciran. An  
 Aingueruac alde gucitic Aldarean daude,  
 eta

eta Ifidro icusten cituen. Beguizco or-  
ren testigu ona de S. Crisostomo : onec  
Estola , edo soñeco guztiz eder arguia-  
quin icusten cituen : eta zuri , Meza en-  
zuten zaudeneco eguia au Santuac esaten  
dizu , devocio andiarequin egon zaitean.  
Ori bera Sto. Tomas Aingeruac icusten

7 Nola Ifidro bere anima garbian  
Aingeruen lagun , da adisquide añ mai-  
tea zan , oriec Mezatan ala icusi , ta a-  
rien erreverencia , ta devocioa icasi , ta  
artu zuen : eta bere lurrac apañtzen Ain-  
gueruac , icusi ciran bezala , laguntzen  
bacioten ? Meza divinoan cembat , eta  
nola berac icusico cituen ? Beñ batean  
bere beargaian berandutu , ta Mezatie  
enzungabeco pena andiaz gueratu zan ;  
baña orregatic ere S. Andresen bere Pat-  
roquiara joan zan. Eleizaco atearc ichuac  
ceuden , ta atondoan belaunicatu , ta chit  
devocio andian jarri ta cegoen. Orduan  
ceruac erdiz erdi zabaldu , ta Ifidro icu-  
si zuen , nola Aingeruen Jannac Ma-  
gestade guciarequin Meza chit solemne  
bat certico glorian , Santuac enzuteco  
celebratu zuen. Amorez urturie beregan  
biurtu zan ! O cer aren animaco consue-  
lo divinoa !

Elei-



8 Eleizetan Aingueruaquin batean ar-  
 robaturic egoten zan ; ta orien Lagun  
 eguin , da Mezatan , Jauna adoratzén,  
 da amatzen zuen. Adifquide batec Elei-  
 za atarian belauñico ta chit devocio an-  
 dian Santua icufi , ta galdetu cion : Ifi-  
 dro , cer eguiten dezu or ? Onec bere  
 biotz sincero , edo garbiarequin eranzun  
 cion : Ceruco Meza enzuten nago. Jain-  
 coaren gauzetaraco , eta batezere Meza  
 fanturaco , bere buru arguitua , Jaunac  
 arguiago eguiten cion : ta efan diran Ain-  
 gueruen egemplo , ta lecioaquin , gucia  
 animaco fede , ta amorio umilla icafi ta  
 beti biotzean jofiric ceucan. Jaincoaren  
 revelacio , edo argui andi batec onetan  
 asco lagundu cion. Beñ Meza enzuten  
 cegoela , Jaunac eracutfi , ta icafi zuen,  
 cembat aren ofensa Eleizetan , da Meza  
 demboran eguiten ciran : eta demonio  
 bat icufi zuen , Libru , edo permaguió  
 bati tiraca biciro ari zala , an gaizqui ceu-  
 denen pecatuac efcribitceco ; fede ta de-  
 vocio gabe ceudenai burla , ta ifeca egui-  
 ten ciela. Argui triste onetan Ifidro de-  
 votoac chit asco icafi , ta damu , ta pe-  
 na andia artu zuen Jaunaren ofensaz , ta  
 animen calteaz.

9 Eta zue Cristau fede gabea , Elei-  
 zan da Mezatan devocio gabe , modu  
 gaistoan egoten cerana , lecio , ta calte  
 onetan icusi ezazu , aurrera nola Ain-  
 gueruen artean zaudena bezala , belau-  
 co , ta gueldi , sofeguz , ta devocio isil  
 batean Mezatan egon bear dezun. Doto-  
 re ascoc diote , Concilio Santu bitan a-  
 guindu zala , Mezatan Oracio bocalic ez  
 eguita baizen mentala , edo biotzecoa.  
 Andre ascorentzat lecio ondo bearra , isil-  
 lic egoteco , ta aldean daudenac ez di-  
 vertitzeco. S. Isidro ala egon oizan Me-  
 za divinoa enzuten , ta beste bere devo-  
 cioetan. Egun andi , edo señalatueta  
 confesatu , ta comulgatzen zan ? Baña  
 nola prestaturic ? Bere anima añ garbia  
 iduric , cer aren orduco erretiroa ! Cer  
 damu , ta biotzeco negarrac ! Cer bicie-  
 ra berri santu baten proposituac ! Cer be-  
 re Jaincoa maitea biotzean ondo artze-  
 co prestaldia ! Comulgatu , ta cer aren  
 esquer andi , ta gracia luceac ! Cer erre-  
 galo , argui , ta indarrac ! Au baño gue-  
 iago zan Isidro , baña erraz ezta elatca  
 gucia.

10 Oficio Divinoetara , ta Jaietaco  
 Dotrina , ta Sermoietara , beti joaten zan,

da aficio andia zuen , ta orietan ceruco  
 argui andiac artzen cituen : da Ifidroren  
 anima Espiritu Santuaren doaiez ugari be-  
 te , ta beti irteren zan. Ceruco doai se-  
 ñalatu oien gañean , Jaincozco Jaquin-  
 tasun paregabea , Mezaren , Eleizaco Ora-  
 cio publicoen , Ledanien , Pater noster,  
 Ave Maria , ta Legue Santuco beste gau-  
 zen gañean Ifidroc beti izan zuen , ta  
 bere obretan beti ondo eracusi zuen. Jain-  
 coaren gauza gucietaraco mirarizco in-  
 clinacioa zuen , ta biotzean ceucana ao-  
 ra cetorquion , Evangelioac dion bezala,  
 Munduco joanetorri , elamesa , ta ber-  
 riquetac utzi , ta Jaincoarequin , edo aren  
 gauzen gañean beti , ta chit , egoquiro , ta  
 ederqui itz eguiten zuen. Ojala , Neca-  
 zaria , zuc ori eguiten hacendu : minga-  
 ñezco pecatu guchiago , cer confesatu izan-  
 go cenduque. Ifidroren itzac , obrac ,  
 confesio , comunio , Mezac Jauna  
 alabatzeco , edo gueide , ta  
 guciai on eguiteco ciran.

Oñ nola.

## ZAZPIGARREN §a.

SAN ISIDROREN GUCIAQUICO

*Piedadea.*

1 Jaincoarequico Piedadea icusi degu,  
 Isidro chit contuan cegoen gure  
 Legue santuguztia bi Mandamentutan sartzen zala : Jaincoa gauza gucien gañean amatzean, eta argatic bacoitzac bere Guidea (ori da Progimoa) bere burua bezala. Obretan bere biotzeco amorioa beti eracusi zuen, ta Jaincoagatic al zuen on gucia progimoai beti eguin cien. Isidro berez chit onzale, ta onguillea zan, eta guztiai ori eguiten bici nai zuquean. Piedade, ta caridade onetan obra milagroso chit provechuzco, ta asco eguin cituen, ta egemplo guciz ederrac eman cituen. Bere Emazte, Nagusi, ta beste lagunaquin eguin cituen Marabillac, eta obra onac contatu bear ditugu.

2 Pobrechoai, esan dan bezala, Ama Virgiñaren icenean Senar Emazteac, berac pobreac baciran ere aparteco Elze, edo Lapicoa eguin, ta conta, ta piedade guciaz ematen cien. Orrela Sta. Ma-

riac egun batean etorri ciran pobreaki ja-  
 ten eman cien. Gueroago pobre bat pe-  
 regrinoaren guisa etorri zan : eta Jesus  
 ona , edo aren Ainguerua omen zan , da  
 Isidri limosna escatu cion. Onec , eman  
 ciozala Santari esan , da eranzun cion :  
 guztia eman zuela , ta lapicoa utsa gue-  
 ratu zala. Santuac orduan : Andrea arren  
 limosna eguiozu. Jaincoac naico eztu , po-  
 brecho au gugandic goseac joatea. San-  
 taicustera , ta eracusteco joan , da mila-  
 gro claruaz elzea beteric arqutu zuen :  
 eta amore onaz pobreaki ondo eman , da  
 aren ondoren etorri ciran beste ascori ere  
 eman cieten.

3 Milagro onetan bezala , bere Se-  
 mea ito , ta Maria negarrez icusi zue-  
 nean , ta bien oracioac piztu zuenean , on-  
 do icusten da , cer piedadezco entrañac  
 S. Isidro cituen , eta nolaco confianza  
 bicia Jaincoagan ceucan. Zuc Necazari  
 prestua , prestuago izateco , emen icasi  
 bear dezu , pobreaki al dezun on gucia,  
 eta Misericordiac Echeari limosnazco mi-  
 lagroac egunoro eguiten laguntzea : eta  
 justuen oracioac cembat balio duen. Ce-  
 ruco atearen gultza limosna , ta oracioa  
 da. Orrequin idiqui , ta S. Isidro ango  
 onda-

ondasunen jabe zan , da ascori on , edo limosna eguiteco , andic eracarten zuen. Zuc ere biotz garbi , ta confianza osoaz oracioa eguizu , ta Jaincoari deitu , ta adituco zaitu : zuretzat , eta limosna eguiteco ere bear dezuna , emango dizu.

4 Job santuac cion : Amaren sabeletic misericordia arequin jaio , ta arequin aci zala. Tobias santuac bere Semeari conseju eman cion : Ene Seme , asco badezu , limosna asco eguizu : eta guchi badezu , orretatic al dezuna emazu. Piedadezco dotrina divino au Ildroren biotzean ceñ aguitz josta cegoen aren betico obra santuetan ondo iculten da. Munda guztian on eguiteco , dirudi , Jaincoac onara bialdu zuela : eta mundatic cerura igo ezquero , aren Piedadezco entrañac badirudi zabalago eguin dirala , ta Santuaren Misericordia limosnetan , ez guchitu , baicen guetu dala ecin goteiagotala , bere milagto andi ascotan icuti dan bezala. Zuc ere fede bici , ta confianza osoarequin Jainco Misericordiosoaren Virtute señalatu oneran , S. Ildroren chit gogotic jarrai zaiozu , ta Jaunac zuzaz misericordia izango du.

5 S. Ildroc bere Nagusian errespe-

to, ta amorio paregabea cion, ta aren  
 favore Piedadezco señale, ta prodigio  
 ederrac eguin cituen. Nagusiac bere Emaz-  
 teagandic Alaba bacar bat, ta chit esti-  
 matua, zuen, Maria ceritzana. Oni gaitz  
 andi batec eman cion, da laster il zan.  
 Gurafoac Maria beren jaio bacarra gal-  
 du, ta elan al baño pena tristeagoan ar-  
 quitzen ciran. Entuenoraco bear ciran  
 gauzac maneatuac ceuden. Orduan Isi-  
 dro piadosoa gucien consueloraco Jain-  
 coac bialdu cien. Bere Nagusietara joan  
 zan: da oien desdicha, negarrae, eta pe-  
 na icusi, ta bera ere chit penatu zan. No-  
 la cariñozco legne gucia cien, bere biotz  
 beraa piadosoa erdiratu citzaion. Belauni-  
 co jarri, ta biotzeco amorio, ta negar-  
 raquin Jaunari disuntaren bicia escatu cion:  
 guero fede andiaz jaiqui, ta gorpitza  
 cegoen leura joan zan: da jaiquitzea  
 aguintzen bacion bezala, uqutu zuen! O  
 escuaren indar prodigioso! Puntu artan  
 bertan Maria biene jaiqui zan: eta Gu-  
 rasoac beste ascotequin beren Alabaren  
 Milagro au miretjiric icusi, ta zoratu ta  
 bezala lengo penac urfi, ta Jaincoa ala-  
 batzen ari ciran.

6 Cer Santuaren opinio, ta reveren-  
 cia

cia gucien biotzetan sortuco zan Alaba  
 gazte ori bicinic alchatu ta icusi zutenean!  
 Ta cer Madrid guztian orten otta, edo  
 fama banatu zanean! Beste mirari andi bat  
 bere Nagusiaren fabore eguin zuen. Au  
 bere aciendac icustera egun batean joan  
 zan, da Isidro bere beartean gogotic,  
 eta lazquiro ari zan. Eguraldi leorra, ta  
 beron cegoen, da Nagusia chit egarritu  
 zan: Isidrori, ur pusca bat nai zuqueala,  
 esan cion. Santua bere Nagusiaren ne-  
 queac lastimatu zuen, da esan cion: Jau-  
 na: araco arri altucho aren aldean ura  
 bada. Bere egarri bicinac ara lasterca arin  
 eramian zuen; baña an uric ez. Orduan  
 esan cion: ; Isidro, emen uric eztago:  
 Nizaz burlatu naizu? Iturria non da? San-  
 tuac lecu artara joan, Jancoari bere bio-  
 tza jaso, ta aculluaz arria, Moises San-  
 tuaren guila, jo, ta esan zuen: Jaincoac  
 naizuenean, iturria emen bazar. Esan da  
 eguin. Bereala ur ederrezo iturri ugari bat  
 fortu ta ertetzan, da Nagusiac edan zuen.

7 Milagrozo S. Isidroren iturri fa-  
 matu onec gaurdaño diran, ta Madriden  
 ondoan Santuaren Ermita baten ondoan  
 dago: beñere edo leorteric andienetan  
 ere, aortu ezta, altuan badago ere; ez-  
 pada



pada beñ, Moro gaitoac S. Isidroren ur  
 milagrosoa, leorte batean, saltzeari eman  
 ciotenean, Ur onec beti dirau, ta onen  
 milagroac ere bai: chit andiac, eta asco  
 eguin ditu: eta gasso ascori, sendatzeco,  
 S. Isidroren ura eramaten diote. Acullu  
 prodigiosoa Reliquiatzat estimacio andian  
 gordetzen da. Bere piedade au gucjenzat  
 ugari issurteco milagrozcó beste iturrí as-  
 co Madriden, da alde aietan Santuac ora-  
 cioa eguin, da atera cituen. Bederatzi,  
 edo gueiago testigu onac contatzen di-  
 tuzte. Gure Colegio Imperialean dan pu-  
 tzua Santuac milagroaz aterraa da; eta eriac  
 edan, da milagro andiac eguin ditu. Ca-  
 raquizco Isidroren urac orobat du.

8 Cofradia Santu berean sartua zan  
 Isidro Cofrade guztiac egun batean ba-  
 razcaria eguin oi zuten. Urteco festa ja-  
 quin orretan guciac maian jarri ciran: eta  
 nola Isidro Eleizetaco bere devocioetan  
 luzaro cegoen, ari bere partea gorde, ta  
 besteac jan zuten. Beranduan Santua La-  
 gunetara etorri, ta areetan, limosnaren  
 zai ceuden pobre batzuec berequin sar-  
 tu cituen. Hermanoac etan cioren: alper-  
 ric, ez inor ecarri. Guc jan degu, ta zu-  
 re partea baiten ezta gurratu. Baña Isi-  
 droc

droc ceruco paquean efan cien : Ondo da : Jaincoac ematen diguna , ta zucc gorde dezutena , gure artean partituco degu. Serbitzariac Santuari bere partea ecartera joan ciran : da orra non milagroz gueituric arquituzan , da eltzea jaquiz , ta araguiz berea cegoen : Santuarequin ceuden pobreac ondo jan zuten da guero etorti ciran beste alcoc ere bai.

## ZORTZIGARREN §a.

EGAZTI , TA CHINGURRIAQUICO SAN  
*Isidroren Piedadea.*

**S**Antu onen Piedadezco ontaluna chit zabala , ta chit lucea zan, edo aren biotzean caburic etzuen : da mirari preciofoac Jaincoac onetan Isidro gatic eguin cituen. Aren entrañac alacoac ciran , non da egun batean Semechoarequin errotara cijoala , elurte andi baten ondoren , nlo taldi bat , edo alco arboletan goseac ceudela icusi cituen. Santua bigundu , ta macurtu zan , ta bere elcu, ta oñaquin elurra quendu , ta bere zortotic garia ondo ugari usoi botu cien. An cijoan Necazari bat alerratu zan , da ga-

garia ala galtzen zuelaco, Santuari erri-  
arta eguin cion. ; Baña ò gucien ceruco  
Aita maitea! Isidro obeto ciequien zu-  
re berri! Usotaldeac garia garbitu, ta  
galanqui ase ciran: Zorroa bidean arin-  
du, edo guchitu zan; baña errotan guei-  
tu, ta milagrozo osoa cegoen.

2 Campoetara garia ercitera cijoanean  
bidezco pobre ascori bere gari pulca eman-  
ten cien, da costalac ondo arintzen cituen:  
choriai ere campoan garia botatzen cien,  
ta gracia onean efanaz: Ea chorichoac.  
zure ere jan ezazute. Jaincoac eguargui  
ematean, gucienzat ematen du. Eta bi-  
dean aimbeste emanagatic, ereiteco or-  
duan costalac beteac arqurzen ciran. One-  
laco milagro andi ascorequin Jaunac be-  
re Isidro maitea onratzen zuen. Milagro  
chiquiagoa etzan Santuaren garia ereite-  
co modu gracioso. Devocioz beteric,  
onela ereiten zuen: Jaunaren icenean:  
Escua bete; eta bijoa au Jaincoarenzat,  
Primicia, ta Amarrena, berac escatzen  
duen bezala pagatzeco, ta garia lurrera  
botatzen zuen. Berriz escua bete, ta cion:  
au Nagusiarequin guretzat. Berriz artu, ta  
efan oi zuen: au chingurrienzat. Onela  
ereiten ari zan.

3 Ah nere Necazari ona! Cer fede, ta devocioa: cer confiança, ta pidadea au, zuc icasi, ta imitatzeco! Ai lastima gogorra! Berdin zuc ere, arc bezala, lana, ta beatra eguin bear! ; Bada, arc bezala eguin añ erraz, nai, ta nai ez eguin bear dezun ori, ta ceru asco irabaztea obe eztezu? Santuac bezala amorez eguizu, ta seguru obeto joango zatzu. Ala Jaincoac ari milagrozcó neurri batean be-ti bere bearretan eranzuten cien: eta beguiz icusten ciran prodigio alcotequin Hidroren Piedadea Jaincoac guciai aracusten cien. Ara nola. Betico garia emanaz, Santuaren zorroac bideetan erdi ulsu, ta errotara guchi eraman oi zuten. Baña Jaincoac betetzen cituen, edo guchi cotzera bota agatic, zorroa bete iriñ irten oi zan.

4 Emendic, nola errotan Jaincoaren, da Hidroren arteco berri etziequiten, eta gari uritic iriñ ugaria gañez eguiterañ, Hidroni icusten cioten, ostu zuela, ulse zuten; eta bere arpeguian eman cioten: ea nola ori izango zan; da besteen costaletatic ostutzen zuela. Santuac testimonio ori paciencia, ta umildade guciae aditu eñan cien: Ni ez naiz laputia, ta

agrabioric inñori eguiten daquidana ; baña alere ori uste badezute , eguia zuen beguiaz icusteco , ori zute iriñ au , ta nic ecarri nuen adimbat gari niri indazute. Ala eguin zan ; baña bigarren aldian gari guchi ori eotzera bota , ta zorroa chit bete arteraño iriña eman zuen. Guciac arituric Maravilla au icusi zuten. Beste onelaco milagro andi ta claroac Isidroren piedadeac eguin cituen. Batzuec e-fango dira.

5 Beste Nagusi bat Caraquizen artu zuen, da onequin Iban de Vargasequin bezalaco prodigio eder asco icusi ciran. Beñ bere larrañean ceucan Isidro gari pilla garbia , eta aparte lastoa. Gari guchi degu, Isidro , eñan cion Nagusiac. Jauna , ez penatu , eranzun cion : Jaincoac guei-ago ere emango digu. Santua , lasto utla cegoen lecura joan zan , ta ori aizatu, ta lasto utsetic gari asco atera zuen , eta an ceuden guztia meretsiric milagro au icusi zuten. Orañdic ere Santuaren con-fianza gueiago zan , da Nagusiar eñan cion : Orañ , Jauna , lastoan dagoen ga-ria neretzat. Bada Isidro : or ecer gue-ratu ezta ; baña alere aleric ecer gueldi-ta bada : guztia zuretzat. Santua orduan  
Jain-

Jaincoaren confianzaz bete, ta lastoa ber-  
riri aizatu, ta len baño ale edo gari  
guejago atera zuen. O cer maravilla  
edetrac oiec! Santuac milagrozo gari  
gucia artu, ta pobrei limosna chit uga-  
ri, Jaunaren icenean eman cien.

6 Tordelagunan beste batequin Mi-  
lagro au guertatu zan. Gari demboran  
Jabea larañera joan, da nai zuquean  
adiña cosecha, icusi etzuen. Eta nola Isi-  
droc bere lur pusca batean gari chit af-  
co artu ta ceucan, gogoac eman cion,  
pilla bateric bostera garia bota ote zuen,  
da esan cion: ; lur pusca onetan zuc añ  
guchi ereñ, da nola izan diteque orrem-  
beste gari zuc ateratzea? Santuac arpe-  
gai aleguere batequin eranzun cion: Jau-  
na bere ondasunac errepertitzen daquena  
Jaincoa da, ta berac daquien, da nai duen  
moduan ematen ditu. Alere duda orretatic  
ondo irtereco, orra zure pillá, ta orra  
nerea; aritzatzu zuretzat. Niri, nere las-  
to utfarequin contentu gueratuco naiz.  
Ori eguin, da Isidroci Jaunari bere biotza  
confianza guciáz jalo, ta tardechea artu,  
ta lastoa aizatu zuen galanqui, ta gari  
len baño ascoz guejago, pobreenzat izan  
zuen.

7 Beste batean , Iban bere Nagusi  
 ona campoac icultera joan zan ; ta or-  
 ra non zaldia ill citzaion. Cer igarotzen  
 citzaion , S. Isidron efan cion. Onec,  
 Nagusiari cion legue , ta amorioaz ba-  
 tean , ara joan , da zaldia illic icusi zuen:  
 eta zaplada bat ematen ciola : ea Jain-  
 coaren icenean , jaiqui adi , efan cion : ta  
 puntu artan zaldia oso , ta bici jaiqui  
 zan. Santua bera bidez cijoan batean be-  
 re astochoa loturic utzi , ta Madalena-  
 co Eleizan sartu zan : oracioan arrobaturic  
 an cegoela , orra non mutil batzuec  
 otsez asi ciran : Aita Isidro, Aita Isidro:  
 laster eguizu : zure astoa otso batec puf-  
 catzen , ta jaten du. Santuac etan cien-  
 ene semechoac , zoazte paquean , Jain-  
 coac nai duena eguin bedi : ta sofegu  
 andian oracioan guelditu zan. Ango de-  
 yocioa eguin , da irten , da marabilla an-  
 di bat icusi zuen: bere astochoa biciric  
 Jaunac gorde , ta otsoa aren oñetan il-  
 lic arqutu zuen. Eta orra nere Neca-  
 zari ona, Santuaren fede, piedade , ta ma-  
 ravillazco confianzaz bete! O ceñ gu-  
 chi lurreco gauzac , eta cembat gueia-  
 go cerucoac estimatzen Santu prodigio-  
 so onec zuri , ta guztiari eracusi cien!

## BEDERATZIGARREN §a.

TENTACIO , TA TRABAJUETACO S. ISIDROREN *Paciencia.*

**C**ERUAN bezala , lurrean Jaunaren vorondatea beti eguitean gure dicha , ta zorian guztia dago. Au Mai-  
su divinoac bere aoz , Oracioric nagu-  
fiaten , edo Pater nosterrean eracatsi ci-  
gun. Eguin bedi zure vorondatea , nola  
ceruan ala lurrean. ; O esaten deguna, be-  
ti eguiten baguendu ! Guc ori beti egui-  
teco , berac beste lecio divinoa eman-  
cigun cionean : Nerea izan nai duenac,  
bere burua , edo vorondatea uca beza-  
bere gurutzea artu , ta egunoro eramai-  
beza , ta Niri jarrai beguiz. Ceruco do-  
ctrinaric gucienzat bearrera an da , eta  
au gordetzeac anima Santidaderic altu-  
enera seguru darama. Onetan S. Isidro be-  
ti ari zan : onetan ordu , ta puntuoro  
bere lan , edo egercicio guztia zuen-  
egunoro ta beti onetan sendoago egui-  
zan. Baciequien , ta ondo bairrendie ce-  
ruco arguiari cecuzan , Jaincoareh vo-  
rondate , edo naia eguiteac salbatzen

gais



gaituela : eta gure naia eguiteac galtzen gaituela.

2 Pribilegio señalatuetic bat Santuric andienetan au izan da : eta gure Isidroren anima garbian Jaunac bere efcuz josi zuen joia, ta doaitic preciosoen, bere vorondatearequin Isidroren biotza añ bat eguita izan zan. Miraritic icufgarricna da, dotrina, ta egemplo au Isidrogan añ ederqui eguina, ta alde gucietatic apañdua icuftea. Achurlari pobre beti arrastaca, edo lurrarequin burruca cebillen batec nondic, edo nola icafsi, ta jaquin zezaquean ori gucia ezpada Espiritu Santuaren argui bacar, da altueneratic. Baña gure Jaincoac Isidro maitea beretzat artu zuen, ta santidade gucian prodigiolo eguiteco, anima guztiraco egoquia eman cion, dá onen lur onac bezala, frutu eder ugariaquin beti eranzun cion. Efan degun fede biciaz Jaincoa ezagutu, ta bere biotze-co humildadean chit beraño jachi, edo ondatu zan : da Jaunaren vorondatearequin bat berea guztian eguin, da virtutearen goienera igo zan.

3 Jaincoaren lecio onetan icafsi ezazu, Necazaria, gauza andiac, eta asco egui-

tean baño, asco ta ondo Jaunagatic su-  
 fritcean virtute gueiago arquite oi da:  
 ta Jesus onaren antza gueiencan onetan  
 oi dago. Jesus umillaren bicitza gure  
 lur gaito onen arantzen, da beazunen  
 artean arquite zan. Orregatic ere Jaua  
 onen espiritua, Aita Eternoaren voron-  
 datean beti bat, eta firme egon zan:  
 arequico umildade, ta amorioz; ta gu-  
 requico ontasun, ta piedadez betea. Ala  
 S. Isidro, Jesus Maisu divinoaren antze-  
 ra, munduco aldarte ta gorabera, gucienc  
 artean beti umil, manso, ta bere Jain-  
 coarequin bat eguin izandu zan. egem-  
 plo edet asco emateco, Jaincoac santi-  
 dade orren ispillu bicia bere bicico tra-  
 tu lurrean paratu zuen Isidroc: eta Na-  
 gusi, lagun, da adisquide ascorequin,  
 Santuac jardun bear zuen; baño orre-  
 gatic ere Isidro beti bat izan zan: bere  
 biotzeco mansotasun, da umildadean,  
 Jaunaren vorondatea beti bat eguin zan:  
 Jaunaren conformidade, ta amorioaren  
 señaleric fiñena au da.

4 Munduco nequeac asco ta andiac  
 guri idurituagatic, Jaunaren eleutic da-  
 tozencan, gururze añ pifua ez tira; emen  
 guizonen da andreen artean datozenac,

gucienean pifurago oi dira. S. Isidro-  
guztietan espiritu igoala eracusi zuen.  
Marabillazco conformidade onetan San-  
tuac chit meequiro, edo delicada iru-  
ten zuen, ta trance gucietaraco sufri-  
mentua prest ceucan. Aingueruen pa-  
quezco bicitza S. Isidro, eta Sta Ma-  
ria eguiten zuten. Goizoro biac leia fan-  
tu batean Jaincoa billarzen zuten, eta  
guero aren icenean echeari, ta campo-  
rai chit gogotic beguirarzen cioten. Ba-  
ña deabruc orien ceruco biciera ecin-  
icusi, edo eraman, da bere lagun edo  
guizon gaisto batzuez baliatu, ta San-  
tuen contra bere arma jaquinquin ten-  
tatzen ari zan.

5 Lenengo: nola S. Isidro chit go-  
iz jaqui, ta Eleizac bisitatzen, da Me-  
zac enzuten luzaro egoten zan, ta bear-  
rera berandu joanagatic, alde aietaco gu-  
zonac baño bear andiago eguiten zuen,  
eta aicc baño obeto bici zan; ori ecin-  
icusiac ta envidiac erretzen cituen. Or-  
tic bada, satanasec tentatu, ta Nagusia-  
ri contru, ta quejac emanciozcaten. Jai-  
na elan cioten: bere acienda Isidro gaiz-  
qui erabilli, ta galtzea nai ezpadu, con-  
tu artu, tu beguira biotza. Eleizetan lu-

zaro egon, da berandu bearrera etor-  
tenda; eta onelaco beste gauzac. Na-  
guliac orie aditu, ta chit alco sentitu  
zuen. Isidro deitu zuen, da queja andi  
orie eman ciozean: are ala bere acien-  
dac fiatu, ta añ gauzqui nola eranzuten  
cion. Jaieran Eleizetan devocioaz ego-  
tea ondo zala; baña atlegunetan inoren  
agrabioan, Jaincoac nai etzuela: ori ino-  
ren acienda ostuaz bera ofenditzea  
zala.

6 Orrelaco queja saminaac Isidroac ifsi-  
llie ta mitarizco paciencian enzun; da  
fosegu, ta suavidade guciac eranzun cion:  
Jauna alco penatzen naiz, zu orrela a-  
ferratzeco guizon orie eman dizuten  
bideaz, ta zure acienda niri ema-  
nac quentzeco pausoetan paratu zaituz-  
telaco. Jaincoari nai eztaquiola, nic ino-  
ri ecer quendu, edo ostuaz, calte edo  
agrabiorie eguita; baña are guchiago  
zuri, nere errespetoguztizco Jabeari be-  
zala. Badaquizu ondo, cer amorio, ta  
leguea zurequico beti gorde dedan: ala  
ecertan ere calterie eguin dizudala icus-  
tea badezu, emen nago prest, arrazoï  
dan bezala, nere irabazitic zuri emate-  
co. Baña onzat arren artu beardezu, goi-

zetan ni Eleizetara joatea, ta bearrera  
baño len, guztien Jauna, da Jabea an  
billatzea.

7 Isidroren eguiazco mantotalun u-  
mill au icusi, ta Nagusia sosegatu zan  
orduan. Alere, cer igarotzen zan obe-  
to jaquiteco, bere beguiz icusi nai izan  
zuen. Berriaz câmpora joan, da cela-  
tan jarri zan, da icusi zuen, nola Isi-  
dro bearreran chit berandu ari zan: ori  
cegoen lecuronz, cerbait elateco, aur-  
reratu zan: eta orra non Isidroren alde  
bietatic, idi uztarri bi, baña elurra be-  
zen zuri ederrac bearreran galanquiro  
ari ciran. Arrituric guelditu zan: da ceruco  
milagoren bat zala sinistu zuen; bada  
Isidro alaco idiric, ta ez orretaco cau-  
daleric etzuela baciequien berac. Mara-  
billa ori obeto icusteco, lasterca cijoan;  
baña Isidrogana eldu orduco, au bacar-  
tic arquite zuen: da ere arrituago, Isi-  
droari esan cion? Zurequin bearreran,  
edo laguntzen ari ciranac, nor, edo cer  
ciran? Santuac bere betico gracia onaz  
eranzun cion: Jauna guizon lagunic emen  
egon ezta; ezpada nere Jaincoa, ceñac  
beti laguntcen didan. Oni biotzetie deit-  
zen diot; eta onen misericordiac ondo  
deit-

deitzen dionari secular saltatzen ezio.

8 Emendic Nagusiac ciertotzat arera zuen, Isidrori laguntzen are icusi cituenac, Jaincoac bialtzen ciozcan Aingueru bearguilleac cirala, berac Mezac enzuten, ta Eleizetaco devocioetan gattatzen zuen demboran, aren lecu edo ordean bearra eguiteco. Nagusiac consue-loz beteric etan cion: Emendic aurre-ra, Isidro, ondoen deritzatzun gucia eguizu. Ez bildur; inoren guezurric sinistuco dedala; eta guizonen, edo dea-bruen tentacio, ta etanai securic eman-go diedala. Orra nere acienda guztia zure escuetan, zurea baliz bezala. Ez bildur, secular nie botaco zaitudala. Onela Isidro bere biciera santu, ta devocioetan aurreratu, ta paque chit ederrean guero bici izan zan. Onelaco Maravilla andi ascotrequin Jaincoa Isidroren fabore beri biartu zala gauza jaquina da.

9 Bata ta beste Isidroren billa, aren acienda, edo bearlecura joan oi cirans; baina devocioeraco demboran bazan, Isidro ez an, baicic Eleizan arquiteco zan, Aingueruac beren contura artua ceucaten, aren partez bearra, lazquiro, ta nequegabe aire galantcan egutea. Ala

Iban

Iban de Vargalec, eta beste ascoc icu-  
 si zuten, idi uzartuac, Isidro gabe, ba-  
 ña Ainguenuac ederqui gobernatuaz, go-  
 ra ta bera zuzen ari citala, ta bear chit  
 lucea eguin zutela : eta bitartean gure  
 Isidro S. Andresen bere Parroquian, Ain-  
 guenuen guita ceruan, da oracioan, an  
 beri arquirzen zan. ¡ O cer mirarizco  
 egemploa ! O cer ceruco bendicio , ta  
 laborac !

10 Necazari ona : salvan, edo fan-  
 tu izan nai badezu, Isidroagan cer ica-  
 si, ta cer imitatu badezu. Beguira on-  
 do trabajuetaco aren mansotatu unilla,  
 ta erantzuteco suavidadea : beguira aren  
 devocioa, ta Aingueruquin zuen tra-  
 tua. Santua oracioan, da Aingueruac po-  
 cic aren orde bearrean. ¡ Ai Aita, esan-  
 go dezu : gac ere gure bear, da ne-  
 queetan orrelaco languille, edo lagun  
 batzuec baguindu ! Gure aldapetaco go-  
 taberac, arrastacac, eta iceruiac guchi-  
 ago, ta ariñagoac izango sinque. Aisa  
 diozu ori, baña ez ongui. Bearbaliz gu-  
 re Jaincoac, ecer costagabe, bere nai-  
 arequin, Isidro, ta beste ascogan beza-  
 la, zagan ere ori egungo luque. Baña  
 orduan Santua Eleizara bezala, zu ta-  
 ber-

bernara. Ez ori. Santua ez taberna zale, ez bulla zale, ez berriqueta, edo joco zale zan. Mezac enzuteco beti goiztar, Ama Virgiña, ta Santuac luzaro billatzeco: eta Aingueruac area bearra eguiten. Aingueruac argatic bezala, zugarie etorrico liraque poeic bearrera, zuc aren guifaco obra santuac eguiten bacindu. Baña zu tabernetan, berriqueta, ta jolas charretan, edaten, da jocoan, ta alcotan gau gucian, Jaincoaren legue gucien contra egoten cera: guero biamonean burua pistua, gorputza nagui baldana, ta bearreraco gogoric ez. S. Isidro ori etzuen. Ari jarrai zaiozu zure Eleizan, echean, da bearrean, ceruco bendicio, ta Aingueruen faboreac, arc bezala, artu nai badituzu. Bide oquerrac ta paulo charrac utzi: ta zuzen ibilli: goiz echera, goiz jaiqui, ta Jaincoa lenengo, aren guifa billatu.

### AMARGARREN §a.

SANTUAREN CONTRACO DEABRUAREN  
al eguñac.

**A**ingueruen artean, edo orien guifa S. Isidro, ta Sta Maria bici ciran: ceruco paquea lurrean zuten



ren: ezta baidaric an etzan, ta are gu-  
chiago aferre, edo erniertatic; ezpada  
Jaincoaren vorondatean biena beri bat.  
Batac nai zuena, besteac nai zuen. Amo-  
rio garbi santuan bici ciran, ta beti con-  
tentu beren pobrezan. Baña Jaincoa obe-  
to serbitzeco, ta oforo bacoitzac bere  
burua emateco, vorondate guciac biac,  
Anai Arrebac bezala, ta aparte bicitze-  
co concierro santu bat eguin zuten: eta  
ori castidaderic garbiena gordetzeco, li-  
breago Jaincoa billatzeco, ta beren ora-  
cio, ta devocioco Egercicio santuetan  
erazago jardute. Ala voto merito andi-  
co an eguin zuten.

2 Sta Mariac Ama Virginiaren Er-  
mita bat bere contura artu zuen, da  
S. Isidro bere lurte, edo aciendagin  
guelditu zan. Eta onetan, da leia santu  
batean bacoitzac bere bideric, eta biac  
biotz gucitic Jaincoa beti billatzen zuten.  
Demborada batean onela chit soleguz, ta  
paque ederrean Isidro aparte egon zan:  
Baña Satanas bere envidiac erreric San-  
tuaren contra jaiqui zan, ta are paquea  
inquietatzeco bere al eguiñaz armatu,  
ta guerra bicia eguin cion. Sta Maria,  
Jaincoari gucia emanic, Cataquitz en  
ceru.

cervan bezala, Ama Virginiaren amorez  
orien Ermitan chit ondo bici zan. Se-  
nar Emazteac cerura lur garbi ederqui  
apañduaren guifa. Jaincozco frutu uga-  
riac ematen cituzten: era deabruac, era  
arc tentatzen cituenac ori ecin sufritu  
zuten.

3 Gauzatic santuena ascoren mali-  
ciac gaitzera erraz ardezaque. Ala Sta  
Maria ascoc batetic, eta bestetic Ermi-  
taron icusi, ta S. Isidrori contu, ta que-  
jac ematera gendeac joan ciran: aren  
Emaztea, devocioaren aitzaquian, Jara-  
maco artzaiaquin, jaiqui, ta defonesto-  
ro bici zala: ta ez erri, edo auzoeraco-  
ac bacarric; bai deabrua bera ere, ango-  
guizon baten figura arturic; guezur ori  
finisterazozeco contatzera etorri citza-  
ion. S. Isidro bere Emazte santaren ber-  
ri obeto ciequienac bezala finistu etzi-  
en; baña Jaincoaren ofensac, ta bere  
Emazte santaren agrabioa asco chit sen-  
titu zuen. Guzia Jaunari ofteciu; ta  
encomendatu cion, ta infernucoc zizaña,  
ta tentacio orien erremedioa escatu cion.  
Jaincoac aditu, ta milagro argui bate-  
quin santa onratu, ta bera consolatu  
zuen.

4 S. Isidro Ermitaronz joan zan, da Sra Maria ordu artan bere devocioetara cijoan. Ibai andira, zubirie etzan lecuari, allegatu, ta icusi zuen, nola fantaciantu, ta mantilla ibaian bota, ta aten gañean, olezco fala batean baliz bezala, igarotzen icusi zuen. Asco chit santua Milagro onequin consolatu zan, da Jaunari gracia eman, da santaren opirio, ta estimacio andiagoan gueratu zan. Milagro au beste ascotan Santuac icusi oi zuen. Beste beñ Senat Emazteac elcarrequin ibai ori leorrear bezala igarotzen zutela, Ama Virginiã biac aguetu, ta berac ortan batere bustigabe bere Ermitaronz eraman cituen. Ibaia igaro, ta belaunicatu, ta biac Ama Virginiari biotz gucitic gracia eman ciozcaten.

5 Demboraren buruan berriz deabruac auzoco gende irsuac tentatu ta maliciãz bete cituen Santaren contra, ta Santuari elan cioten, Emazteac fede, edo legueric gordetzen etziola, ta Jaramaco Artzaien, da Unaien ondoren inquietatzen cebilla. Gende irsu oiec belte aitzakiaric etzuten, ezpazan Santa bere Ermitara joateco, edo limosna escatze.

carzeco, campoan egunoro icusten zuten; baña ibai andian nola igarotzen zaberac etzecusten. S. Iñdrot, Santaren inocencia garbiaren, da guezurrezco testimonio aien berri ondo ciequien, da alaco ofensa itzuliac, elan al baño guaiago, lentitzen cituen. Santo Cusfo baten antrean negar andiac eguin cituen, ta aren gracia arguitu, ta lagunduric, salatzalle izan ciran gende itluac berequin Caraquizco Santaren lecnronz, beltelaric bezala eraman cituen.

6 Celatan bezala guciac an ceudela, orra non Sta Maria belteetan bezala, bere Ermitara, ta devocio andian cijoala, icusi zuten. Ibai andira, zubi, edo barcuric etzan lecura, etorri zan, da guzriac cecustela, Santa ciñatu, ta mantilla urtan bota, ta oliocharroa, ta argaia Ermitaraco escuetan cituela, urganetan bustigabe pasatu zan. Aronz, ta ononz igarotzen, Milagto andi ori guciac icusi zuten. Arritu, edo miretiric Jaincoaren prodigio orrequia guelditatu ciran: Jaincoa alabatu zuten, da Santaren marabillac contatu cituzten: S. Iñdro chit contentu, ta paquean, bare Emazte fantari Jaincoac bere onra añ clau-

30 biurtu eiolaco. Santa bere ceruco, ta Ama Virgiñaren devocioco paquean chit ederqui aurrera bici izandu zan.

### AMAICAGARREN §a.

S. ISIDROREN AZQUENGAITZA, TA  
*eriotza preciosoa.*

**J**Aincoaren vorondateco santidade altuaren neurri osoa Isidrogan bete zan: aren gustoco frutu gozo esco- gitua bezala chit eldua cegoen. Lur gais- to onen gañean, arantzen artean beza- la, neque ta pena gogorretan bere Ja- be divinoac gorde zuen luzaro; bere escutic aldatua bezala, Landare, edo gazte zanetic Arbola chit galant, ta bi- eitzaco frutuac eman arteraño aci zan, da chit ugariac eman cituen. Lurrean ce- ruraco jaioa zana bezala, etzegoen on- do: ceruac Santua nai zuen, ta arrazo- iaz beretziz escatzen zuen. Luzaro chit, bear, neque, ta pobrezan beti bicitu zans; baña chit contentu, ceren Jaunaren vo- rondatea ori zan. Contentuago ascoz ill zan, ceren bere Jabe maiteac ori nai zu- en. Ceruraco abisoa, edo ill berria, glo- riaraco deia bezala aditu, ta bere burua Jaunari oforo eman cion. Eto-

2 Etorri zan bada dembora, cese-  
 an Juez justuac Ifidrori bere umildade,  
 caridade, ta beste virtute señalatu en sa-  
 ria eman nai cion, ta enotzaco gaitzac  
 artu, ta oiera sujetatu zan. Jaincoac dei-  
 tzen ciola, bereala ezagutu zuen, da  
 ceruraco prestatu nai zuen. Nola pobrea  
 jaio, pobrea aci, ta pobrea bici izan  
 zan, dicha andia, ta cer eguin chiquia  
 cencan bere Testamentua eguitean. Mun-  
 du falso guezurti orretan bezala Testa-  
 mentua, ta Eleizacoac eguiteco ingura-  
 ca, ta batera, ta bestera afustatu ezte-  
 din, ill bear duela, edo iltzeco peligroa  
 ezagutu eztezan, ta orrelaco engañuric  
 Ifidrorequin etzan. Andieche ascotaco  
 desdicha da ori: ill bear, ta iltzeco da-  
 goen tristeac ezagutu ez bear. Lan an-  
 discoa da. ; Nola izango da? Ori efate-  
 ra ez Medicu, ez Confesore, ez beste-  
 ric bildurrez atrebitzen ezta. Au lana.

3 O dichagabeac, guizon, edo an-  
 dreac finisten dutenac, enotzaren peli-  
 groa efateac edo abifatzeac, bicia labur-  
 tucodiela! Jaincoac naiduen artean, ecin  
 ñor ilco da: eta zu ere ecin ilco cera.  
 Orregatic ere ascoc naiago du ceru bi-  
 cia galdu, lurreco enotzaren icena adi-

tu baño; O bedeica gure balerri, ta Ne-  
 cazari eche pobre umillac! Orrelaco bil-  
 durgabe ta zuten Eleizacoac eguitero  
 elan, da guro gendeac Jaincoaren fabo-  
 re andi bat bezala, fede ta amore onez,  
 S. Isidroren guisa, ceruraco berri on ori-  
 artzen dute. Onela Santua beregan, ta  
 araco chit prest cegoen: lurtean gorpu-  
 tza, ta ceruan biotza. Paper guchi, ta  
 dembora guchi bere Testamentua egui-  
 teco bear zuen. Erraz Jaungoico egui-  
 azco, edo Trinitade Santissimoari bere  
 Anima betico eman, da S. Andresen  
 Parroquiari bere gorputza an enterratze-  
 co utzi cion.

4 Testamentuaren Buru, edo asiera  
 au eguin, ta eguina cegoen guzia. Be-  
 re soñeco pobre garburo estaltzeco diña  
 cecarrena; utzi zuen. Utzi cituen bere  
 achur, ta bicitzeco premiaz cituen campo-  
 raco erremientac: berac irabazi zuen lur-  
 pusca bat, eta bere Astochoa; eta orta-  
 gucia. O ceruco Isidro preciatua! O ce-  
 ruraço ceñ ariña ceuden! O Testamen-  
 tu guciac onen erraz, ta zuzen eguiten  
 balira! O ta cembatec bere eriotzan Isi-  
 dro Achurlari pobrearen fuerte dichoso  
 en artu, ta berea pocic arenarequin fru-  
 catu.

Eatuco Inquean ! O andien , da aberatsen  
 peligroac ! O pobrechoen zorioneco fuer-  
 te segurua !

5 Au eguin , da devocioric andiena-  
 requin prestaturic confesatu , ta cerura-  
 co Bidezcoaren guisa , Viatico Divinoa,  
 ta Oleacio santua artu cituen , ta Jai-  
 nari Sacramentuen graciae foseguz eman  
 ciozcan. Azquenean Tobias santuaren  
 guisa. Espiritu Santuac arguituric , eche-  
 coac deitu , ta elan cien : Ea , Jaincoaren  
 bildurra zuen animetan sartu , ta be-  
 biotz guztitic serbiezazute , aren Man-  
 damentuac ondo gordeaz , ta aren vo-  
 rondatea gauza gucietan eguiñaz. Ni ba-  
 noa emendic : Otra , Maria , Joan zure  
 semea : Ama onac bezala , beguira zai-  
 zu. Otra , Joan , Maria zure Ama seme  
 on batec Ama bezala , onra ezazu. A  
 Dios Maria , nere Lagun maitea. A Dios  
 Joan nere semechoa. Zuen al diruzuten  
 obra onaquin nere animari lagun zai-  
 zute : eta nic cerutic pagatuco dizutet.  
 Onetan beregan sartu , ta fede , esperan-  
 za , ta caridadeco actu amoroso andiac,  
 eta alco eguin cituen , ta bere espiritu  
 umilla Jainari eman cion.

6 Eriotza Jaunaren beguietan añ precio-



so au, S. Andres egunean, da Julianoc dienez, bederatzi eun, da iruroguei ta amairu garren urtean izan zan. Batzuec guero-ago diote. Dana dala, ciertoa da, Gorputz santua S. Andresco Parroquia, edo Cementerioan enterratu zala. Madridco Eleiza guztien artean au zan S. Isidro azquenic icustatzen zuena : emen egunoro bere devocioguciac sofeguz eguin, da bearrera joan oi zan. Gorputz santua lurpean berroguei urtean egon zan, da ez ondo ; bada errecacho bat aren gaitetic igarotzen zan, ta onec lurra erabilili, ta aguertzeco zorian cegoen. Baña Cristoc bere Evangelioan dion bezala: Zuen buruco illecho bat ere galduco ezta : ala bere Isidro maitearen Gorputzeco partetic chiquiena ere galtzen utzi etzuen. Bere poderio guciarequin, nai zuen bezala, onratzeco mirarizco bide-eratic, ta Milagro patente ascorequin Isidroren lantidatea aguertu zan.

7 Orretaraco Jaincoac cerutic Isidro bialdu zuen, da bere Compadre lagun bati aguertu, ta esan cion: Jaincoac aguintzen zuela, S. Andresco Sacerdote, ta Parroquianoai contu berac ematea : eta aten Gorputza Cementeriotic Eleizan sar-

en, ta ondo para cedilla. Eleizaren ondoan guizon ori bici zan; baña sinistuco etziotelaco bildurrez elatera atrebitu etzan: ta orren penan bereala gassotuzan. Bigarren aldian Santua etorri, ta Andre noble bati ceruco Mandatu ori bera eguin eion. Onec bereala contu eman cien: da nola Madriden S. Isidro fama andia etzi zuen, erraz sinistu cioten. Parroquianoac beren devocioac bildu, ta lurra achurtuaz, Gorputz santua aguertu zan: da emen Milagroa Milagroaren gañean.

8 Berroquei urte lurpean egon bazan ere, Gorputz preciosa barere ufreldu, edo aleric mudatugabe, gucia osoa, ta garbia cegoen. Aren iljanciac ere chic oloric, ta ceruco ufai gozo bici bat ematen zuen. Gorputz santua ala, ta ainbeste ceruco prodigioaquin onraritic icufi, ta contentu, ta atseguin milagroso batec guztien biorzac bete cituen: eta are gueiago Gorputz santua Eleizara aldatzeco artu zanean, San Andresco campana, edo esquilla guciac, iñore ere uqutu gabe, mirarizco alegriaz bete ta bezala, berenez, jotzen, da errepicatzzen asi ciran, ta Santua Eleizan sartu

artean orrela aritu ciran. Fede ta devotioric andienarequin , S. Isidro bere S. Andresen Eleizan , bear zan bezala , ta lecu ederrean paratu zuten : eta egun, edo ordu onetatic bereala Gorputz santua , ta aren gauzac , ta aren obico lurta milagro andi alco eguiten asi ciran, da beti eguiten ari dira.

### AMABIGARREN .92

ALDAERA , EDO TRASLACIO ONETACO  
*beste marabillaco.*

**G**Orputz santua Eleizara aldatu zaneco festa , edo funcio devotoan S. Isidoren Translacioa deitzen diote , ta egun señalatua beti izandu da. Aren mirarizco Santidade anartean excuratua , Milagro andi gucien aguiria , ta asiera dichosoa izandu da. Gorputz preciosoa aimbeste urtean egon zan , ez andien obi , edo tumba costosoan , zapada edocen pobre umill , edo munduco pobreenaren guisa , ta lurpean ; baña Jaun poderoso lurreco soberbia beronz ondatzen , ta bere pobre umillac gora galotzen daquienac , Isidro umilla  
lur.

Catolica Doña Isabel gaitz andi batequin,  
iltzeco zorian cegoen. Baña nola S. Isi-  
droren chit devota zan, biotz guztitic  
deitu, ta ofasuna escatucion. Santu amo-  
rosoac bereala aditu, ta sendatu zan.  
Ceruco fabore onequin aren devocioa  
irazaqui zan, da Jaincoari esquerrac e-  
mateco, S. Isidroren Capillara joan zan.  
Urna, edo Gorputz santuaren Caja idi-  
qui, ta Erreguiña piadosac aguirian ado-  
ratu zuen. Onen Dama batec devocioz,  
edo bestela, Santuari onean muñ egui-  
tera joan, da Beatz bat ortzaquin atera  
cion, da ondo gordeta ceraman. Erre-  
guiña, ta Damac cocheetan sartu, ta  
Echetaco abiatu ciran. Baña Dama or-  
ren cochea ez atera, ta ez aurrera ber-  
tan guelditu zan, da al eguin guciaquin  
bere ecin movitu zan.

4 Erreguiña, ta besteac aritu, ta  
bicaratu ciran: eta cer ote zan, inoic  
getziequien. Orduan Damac Jaincoaren  
castigua Milagro andi onetan icusi, ta  
Erreguiñati etan cion: Andrea: nereca da  
culpa. Beatz au Santuari isillic quendu  
diot, eta ona non dedan. Erreguiñac  
bere Beatza santuari biurtzea agiundu  
zuen: on eguin, da aren cochea bes-

teen guisa arin, da ondo ibilli zan. Onelaco mirari teñalaturic Jaincoac besterequin ascotan, edo bere Isidro maitearequin adiña eguin duen, seguratzea erraz ezta. Ara beste prodigioa.

5 Joan Diaconoac contatzen du, Don Pedro Garcia Sacerdote bere ezagunari Milagro bat guertatu citzaiola, ta berari aditu ciola. Gorputz Santua adoratzen cendela Don Pedro, ta beste alco, onec illecho batzuec guraizeaquin ebaqui, ta bere Eleizan beste Reliquiaquin devocioaz veneratzeco eramian cituen. Berandu echera zan, ta jan da bereala illeac Eleizara eramateco, escuac garbitu, ta maian jarri nai zuen; bañā ecin ori, ceren biotzeco miñ, ta gorputz guztico icara andi batec eman cion. Santuaren abisoaz, Milagroa ezagutu zuen, ta damu andiarequin Promesa eguin cion, Reliquia bere Gorputzari bereala eramateco: eta beregan biurtu, ta sofegatu zan. Lasterca, barauric ce goen bezala, ille santuac artu, joan, da Santuari biurtu ciozcan. Orduan chit fendatu, ta goseac bere urrutico echera biurtu, ta gogoric eta galanqui jan zuen. Quereq contentuz beteric, ondo costas-

ricaco Milagro andi ori contatu zuen.

## AMASEIGARREN §a.

5. ISIDROREN ONRAGATIC JAINCOA ASCOTAN BIRYEN IZAN DA.

I **B**Ere beguietaco niniari bezala Isidrori Jaunac beguitatzen dio, ta onen ofenlac chit aguitz sentitzen ditu. Au Cristoc bere Evangelioan dio, Ala Isidro Santuaren illecho bat aren burutic galtzea nai eztu. Milagro andi ascotan ori iracurri dezu. S. Isidro ofenditza, bere beguietaco ninian Jainco jotzea da. Au Milagro andi onetan ondo icusi zan. Erregue S. Fernandezoren Ministro bat Madrida Erregueren eguitaco batera etotri zan. Platica santu batean S. Isidroren virtute, ta alabanza andiac aditu cituen, da eraqui eriaz arrotic elan zuen: Ez niri orrelacoric elan. Gurafo andien seme bat Santu izatea, aditzen det. Baña Achurlati pobre bat, orren santu izatea, nic sinisten ezdet. One-lacoac elan, afaldu, ta oiera joan zan. Desdichaduac gaizqui elan bazuen, ondo pagatu zuen, da elana costa citzation.

Loac

2. Loac artu bearrean, larrñ estu battec, biorzeco naigabe, ta gorputz guttico oñacè biciac artu zuten, ta bertan iltzea etsi zuen. Aren deadar izugarrietara echecoac lasterca joan ciran. Orduco bere culpa andia guizonac ezagutu, ta damuturic! Ai, efan zuen! Ai! Jaincoaren, da S. Isidroren castigua da au, ceren onen contra añ gaizqui itzeguin dedan. Nere S. Isidro: nere Santu andia: onelaco garzic nere biciac icusi eztat. Goazen gucioc bereala: goazen Santuari barcacioa, ta ofasuna escatzerara. Gauerdia zan, da otz icaragarrñ; baña echeco guciac arguiaquin arin eramman zuten Gorputz lantuaran aurean negar andiaquin jarri zan; da barcacioa escatu, paqueac eguin, da Santuac bertan oloro lengo ofasuna biurtu cion. Onec guero efan oi zuen: S. Isidro Achurlaria Santua andia da: arequin burletan cer ibilli ezta: niri ondo costa citzadan.

3. Miguel Perez guizon berez bur-laguillea, ta gaizqui esalea, beguieraco miñ, edo oñaze portitzaquin cegoen. Bere aideac lastimatu, ta efan cioten: S. Isidro milagrosoari biotzetie deitu, ta  
erme

ermedioa esca ciozala. Eriac burlaz esan  
 zuen : ! O Isidro Beatoa , atoz nigana.  
 Au esan zueneco dolore añ latz , ta  
 garratzac eman cioten , non uste zuen,  
 beguiac oñazez saltatu bear ciotela. Be-  
 re animacoac neque gogor orrec argui-  
 tu ciozcan , da biotzeco damu andiare-  
 quin , Santuagana gogotic biurtu zan,  
 bere culporen pena justua ezagutu , ta S.  
 Isidroren Capillara arin joan zan , da  
 barcacioa , ta erremedioa elcatu orduco  
 devocioz bete , ta begui argui , ta gar-  
 biquin sendaturic echera biurtu zan. O  
 Santu amorosoa !

4 Beste batec , dio Joan Diaconoac-  
 S. Isidroren gloriac , eta milagroac adi-  
 tu , ta ecet sinistu nai etzuen. Alaco ba-  
 tean ausardiaz esan zuen : Isidroren Gor-  
 purza sartan bota dezagun , da erretzen  
 ezpada , orduan sinis diteque , Santuac  
 Milagro oriec eguiten dituela. Onelaco  
 maldadeac Santuaten agrabioan esaten ci-  
 tuen , da orra non Jaincoac perlesia go-  
 gor batequin elbarritu , ta erremedio ga-  
 be , eriozco borrero orrec bicia quen-  
 du cion.

5 Leorte andi batean , Madrid gu-  
 tia goseac iltzeco zorian cegoen. S. Isi-  
 dro



dro beren Patroi andiari, Gorputz Santua ateraric, Errogativac, beste alcotan bezala, euria alcanzatzeco, asi ciozcaten, Añ laster euria atera ezuten; da Garcias ceritzan Moro infame batec alcoren aurrean esan zuen: Baldin Isidroren Gorputza, aguirian dagoen artean, oiei euria ematen badie, ni Cristau egingo naiz: eta cumplitzen ezpadet, zortzi egun baño len eriotza gaitoc acaba nazala. S. Isidro bere devotoac aditu cituen, ta ceruac euri ugari bat eman cien. Moroa Santuari eguin cion promesa cumplitzera obligatua cegoen; baño nai ezuen. Alacoric ezpaliz bezala cebillen, da zortzigarten eguna zan. Baña epe ori bete baño len, Madridco ibai ondoan cegoela, norc edo nola inhorc jaquingabe, gabaz puñaladaz jofiric, illa arquta zan. ¡ O Jaunaren juicio, ta castigu izugarria!

6 Alonfo Sanchez gaitz andi batequin Eicizacoac eguñic, iltzeco, edo iltzac Medicuac utzi zuten. Baña S. Isidroren Reliquia fede biciaz eman, da adoratu, ta milagro bertan onafina, guciac cecustela eman cion. Maria Lopez Alonforen emazte onac Milagro añ

patente icusi au guizon bati contatu, ta onec eranzun cion : Andrea ; Jaincoac emandezagne ofasuna ; baña ortelaco Milagroac S. Isidro eguiten dituela, nie finisten ezter. Gau artan guizon tristea eriozaco trance estu batean arquite zan, Berac cion guero : uste zuela , S. Isidro neque mora guciac aren contra beñgoan descargatu cituela , ta bereala ito bear zuela : Santuaren contra ceren itzeguin zuen , aren castigua zala ezagutu zuen ; da bere estuan elan cion : Nerre Achurlari Santu milagrosoa , barca-cioa , barcacioa. Uztazu , ta Meza bi ateraco dizquitzut. Santu amorosoac aditu , ta bereala libratu zuen ; da goicean lasterca promesa cumplitzera joan , da confesatu , ta comulgatu zan , da S. Isidoren chit devotoa guero izandu zan.

7 Isabel Soriano aize gaito batec eman , da elbarritu zan ; da oñace guciz biciaquin. Solegugabeco pena onetan zortzi egun pasatu , ta Maria Benita bere Ama , ta S. Isidoren chit devotac elan cion : Santuari biotzetie dei zaitozu , ta seguru adituco zaitu. Ala deitu cionco Santuac bertan oñore sendatu zuen. Milagro añ claro au ascoc icusi , ta publi-

blicatu zuten. Onetan ceñ garboso S. Isidro ibilli zan, Ama onac alabari esan cion. Baña au, leguegabe Amaren, da S. Isidroren contra biurtu zan: Ama, ez niri ori esan. Jaincoac lendatu nau; ez S. Isidro. Baña esan bazuen, ondo pagatu zuen.

8 Bereala gaitz andiagoac artu zuen: iru astean elbarritu ta ecin ecertaco baliatu zala egondu zan. Erremedioric etzuen, da etiric cegoen. Baña bere culpa ezaguru zuen, ta orren pena zala, cercu Santuaren Milagroa sinista etzuen. Bere negar andien artean S. Isidrori barcacioa escatu cion, ta len baño obeto, bere ofasuna: aren Capillara joateco, ta Meza bi ateratzeco Promesa eguin cion. Arc esan, da Santuac eguin, gurtia bat. Bigarren Milagroarequin bertan ofasuna artu zuen. Guziac au icusi zuten. Habelac pozaren pozez Santuagatic cer esan, da cer eguin etziequien. Amac esaten cion; Contu, Isabel: Achurlari Santuarequin burletan ez ibilli. Ez nic, Ama; oi cion, ez gueiago, nere Santu milagrosoari alacoric secular esan.

9 Madridco Jaun aberats batec bere aciendac ondo erabiltzeco, Morroi, edo

edo Achurlari fiel bat nai zuen. Cam-  
 potar gazte bat etorri, ta elan cion, be-  
 re contura aren lurrae artuco zituela.  
 Nagusiac fianzac elcatu ciozcan. Muti-  
 llac elan cion: Jauna, nic eztaucat fia-  
 doretic; baña orra fiadore ona, ta segu-  
 rra: S. Isidro Achurlaria Fiadore ema-  
 ten diot: eta bioc eguin degun tratu  
 gucia cumplitzen eypadet, Santuac cas-  
 tiga nazala. Nagusi onac Santuaren amo-  
 rez, ta aren icenean morroia artu zuen.  
 Au arlote cegoen, da chit ondo janci  
 zuen, da aurrera diruac ere eman cioz-  
 can. Mutillac bere burua añ goapo icu-  
 si zuenean, laster igues eguin cion: ta  
 emen S. Isidroren gracia oneco Milagro  
 preciofoa.

10 Morroia gabac igues joan zane-  
 an, alacoric uftegabe, S. Isidroren Ca-  
 pillaren ondotic igaro zan. Corrica, ta  
 iguesca arin, bere uftez cebillen. Baña,  
 ô! Isidroren poderioa, ta catea mila-  
 grolaoc! Eleizaren giran gau guztian cor-  
 rica ibilli zan; da eguna arguitu, ta loa-  
 ma bezala an arqutu zan. Nagusiac Muti-  
 llaren berri jaquin zuenean, S. Isidroren  
 queja amorosoac, Fiadoreari bezala e-  
 macera, Eleizara joan zan, eta orra non  
 Mor-

Morroia giraca an topatu zuen. Bacebilen, baña Santuac bere oneraco an ceucan loturie. Cer eguiñic etzegoen. Nagusiac, eta berac Milagro añ aguiri andia icusi, ta au Santuagana beteala, ta biotzeric biurtu zan : da Jaincoari, ta Nagusiari barcacioa escatu, ta benetan S. Isidro milagrosoaren icenean, bere bici guztian Nagusia serbitzeco ofrecitu zan.

### AMAZAZPIGARREN 5a.

*SAN ISIDROREN BESTE FABORE, TA MILAGROAC.*

**E** Guia esatera, nere Iracurlea, Santuaren Prodigio guztia ecimen esan ditezque. Ecin contatu ala, chit asco, ta era ascotan dira. Milagro mota gucietan Jaincoac bere S. Isidro chit gloriosoa eguin izandu du. Gure esieran lurretic cerura bere piedadezco entrañac eraman, da an zabaldu, ta guretzat idiqui cituen. Lurrean gucienzat Onzale amorosoa bazan, ceruan Onguille poderosoago da. Ascotan S. Isidro bere devoto, ta besteai eder, da glorioso aguertu zaic, ta nai, ta bear  
zu.

zuten ofasuna ceratic ecarri die. Beste ascori aurtea berac artu, ta beren trabajuetan cer eguin bear duten Santuac eman die. Buruco miñ andietatic chit asco, ta beste gaitz gogorretatic are guei-ago, ta batezere calentura luce gaitzoretatic libratu izan ditu: eta S. Isidro chit poderosoa onetan, da beste prodigioetan beti izan da.

2 Asco beguietaco oñazez acabazten, edo itsuturic ceudenac Santuari deitu, ta bestegabe prodigio claroquin milagroz fendatu ditu: beguiac arguiac batzuei, maiñcu ascori besoac, erren ascori oñac: Elbarri ascori indarra, ta ofasuna: etsitric edo erioa beguietan ceucatenai bicia eman die, ta oforo fendatu izan ditu: ill asco piztu, edo refucitatu ditu: denborora lucean umeric gabe penaz ceuden ezconduai ceruco frutu, edo unteen bendicioa Santuac eman die. S. Isidrori ofeguin, da deabruac iguesca ascotan aienatu dira. Satanafen aserretetan gaizqui bici citan Ezconduai ceruco paquea Isidro paquetsuac ecarri die. Deabruen mendean, pecatuen lazoetan nasturic luzarocendenai eguiazco penitencia, confesio oso bat, eta biciera betri santua paquean egui-

eguiteco lagundu die Mairuen eateaquin,  
iltzeco sentenciarequin ceudenai, escua,  
libertadea, ta bicia eman die. Eta itz  
guchian orra asco efan, eta onetan Cris-  
tau devotoac nolerebait icusico du, S.  
Isidro gloriofoa ceñ guztizco Milagro-  
foa, ta alde gucietara ceñ prodigiofoa  
dan.

3 Gure Españaco Buru, edo Cor-  
tean Erregueetatic bera gende guztia  
S. Isidro beren Patroi estimatuagandic  
artu dituzten fabore milagrofoac cabu-  
ric eztute. Madriden Erregueac, eta bes-  
te chiqui ta andiac beren gaitz, edo pe-  
ligroetan Santuagan, nai duten gucia se-  
guru daucate. Leorte andietan euria es-  
catu, ta Achurlari Santuac bere campo-  
ac cerutic ugari irrigabatzen ditu. Guizon  
gazte zanetic S. Isidro berezco gracia,  
edo berezquiroco officioa zuen, iturri  
zarrac bertizeco, eta iturri berriac a-  
guertzeco: putzu leorac garbitu, ta e-  
derqui maneatzen cituen; eta urai beti  
irauteco bide segurua ematen cien. Ma-  
rabillazco ur gozo garbiac Santuac itur-  
ri berrietan atera cituen: eta len da gue-  
ro, edo beti S. Isidroren faborezco urac  
Milagro andiaquin ceruco Boticaco eda-  
riac

riac izandu dira, ta ascoren ofafunaga-  
tic Jaincoa alabatzeco Bidea.

4 Onere Achurlari santu paregabea,  
ta gucien onguillea ! O ! ta ceñ mira-  
garri, ta gloriofoa, ala ceruan, nola  
lurrean Jaincoac bere Santuen artean e-  
guin zaituen ! Gure Erregue andi dichos-  
foen urrezco Coroa ederra, eta oien  
Corteco Patroi, ta Bitarteco poderfoa,  
ta Aitaric maiteena zu cera: Achurlari  
garbi, ta Necazari prestu gucien ceruco  
amparo lagradua zu cera. Oiec beren  
neque estu, ta gaitzetan esperanza oso-  
az zugana datoz, ta berac nai dutena  
zuc eguiteco, zugana bitutu bear dute.  
O cer fedea ! O cer leguea ! O cer bi-  
otzeco amorioa oiec, eta gacior Zuti-  
zor dizugun ! Bada alaco virtuteen egem-  
gloac zure miragarrizco bicitan, ta ari-  
garrizco Milagtoetan beti eracutsi ditu-  
zu ! Gure Necazari on gucien biotzac  
zuri gogotic jarraitzera, ta beren bici-  
era pobrean zu unitatzera biciro animat-  
zeco, laburcho badere esan ditugun  
Marabillac, ascodimbat, edo sobra  
dira.

5 Orañ, nere Santu chitezco On-  
guille maitetsua ! Melede andi bat, edo  
an-



andiena, nic ere escatta bear dizut, eta da, eriotza on bat, edo Jaunaren beguetan preciofoa dana neretzat, eta gure, edo zure Necazari onradu gucienzat. Badacutfu ondo, nere bitarteco poderofoa, or goien, da Jaincoaren ilpilu arguiari, iltzeco zorian banago ere, zure icenean, da zure amorez cer al eguibaz eguin ditudan, da necazari maiteen falvacioa cembateraño defeatzen dedan. Orienzat, bada, lau mofede bearenac, eta nere biotzean beti jofinic daudenac eman bear dizquidatzu. Lenengoa da orien paquezco, ta zure antzeco biciera fantu bat elcarren artean guciac eguitea: eta deabru charrac, Zu, ta zure Efpofa Santa bezala, inquietatu nai baditu, zuetara echeco paqueagatic acudi dezatela, ta chit biotzetie, S. Jote gloriofoari ta zuei bioi, Pater nofter, da Ave Maria bat egunoro beti errezatela.

6 Bigarrena: Necazari guciac zure fabore, ta zure guifa, illean beñ, edo lenago, Jaincoaren, da Ama Virgiana ren egun andietan, confefatzea, ta itzaquin baño, obra, ta egemploaquin are guciago echecoac eramatea. Doctrina, Sermoi,

moi, ta beste Egercicio santuetara joa-  
tea, eta Eleizan, zuc bezala, ceruco  
jaquinde santua icastea. Irugarrena: Ju-  
ramentu, birau, ta gaizqui elacac be-  
ren egemplo, ta contuarequin quentzea,  
ta ehenic berico alienatzea: auzoai, ta  
iñori befteri secular gaitzic ez, baicen  
al dan on gucia Jaincoagatic, eguita:  
goiz echera guciac biurtu, ta afaldan ba-  
ño len, Errosarioa, ta beste devocioac  
eguita. Laugarrena: beren dembora da-  
torrenean, Semeai, ta contuzago Ala-  
bai beren zuzen bidea ematea, edo era-  
onean oric ezcontzea. Onetaco Nagui-  
talun edo atzerapena Gurasoen, da u-  
meen condenacioco peligro andia oida.  
Orañ, Guraso diranai nola, ta cer gaz-  
tetan nai zuten ezagutzeco arguia emai-  
iezu. Zuz zure Bspofa maitearen aur-  
rean zure pobrezaren Testamentu garbia  
eguin cenduen bezala; gure Echajaunac  
ete, juiciozo personaquin gauzac ondo  
beguitatu, ta icusitic, lenbaño len dem-  
boraz, edo bereala, ta beregan daude-  
la, beren Testamentua eguin dezatela  
onela libre zura guila, Jaincoa beri fer-  
bitzeco lurrean, ta zurequin batean gu-  
cioc beta alabarzeco ceruan. Amen. 1500



# SANTA MARIA

SAN ISIDRO ACHURLARIAREN  
Esposa gloriosa, edo onen Bicitza, Vir-  
tuteac, eta Milagroac.



Ure Jaincoaren Jáquinde  
mitagarriac bere Eleiza  
Santaren edertafunera-  
co, Guizon, da Andre-  
en artean Santuac nai  
ditu: aberatlen, da po-  
breen, chiqui, ta andi,  
altu, ta bajuen artean. Aren Poderio, ta  
Ontafun emalleac caburic eztu, ta ori  
era gucietara chit arguiro eracusten du.  
Madridco auzoan, Santa Maria, S. Isi-  
droren Esposa escogituan au claro, ta  
ederqui icusi zan. Jaunaren Sierva mai-

re, ta Adisquide doatlu au bere Estadu  
 gucietan guciz mitagarria izandu zan.  
 Ezcongai gazte, edo Doncella zala, Vir-  
 gina chit garbi eder, da fama andicoa:  
 Ezcondu ta chit onesta, ta fede oha  
 oloro gorde zuena: Matrimonioan ber-  
 tan, Jaincoa obeto serbitzeco, conseju  
 divinoaz, bere Senar Santuarequin ba-  
 tean, Anai Arreben, edo Senideen le-  
 ialtasun, ta castidade garbi osoa, voto  
 eguin, da gorde zuena. Laugarrena: Se-  
 narra cerura igoezquero, bere Alargun-  
 za bacarrean, da paque santuco eguin  
 zuen Biciera bertian. Lau Estadu oietan  
 Andre pobre guztien ceruco Ispillu eder-  
 ra, lutrean gure Santa, icufico dezun  
 bezala, izandu zan.

### LENENGO §a.

SANTA MARIAREN JAIOTZA, ACIERA,  
 ta Gaztetasun santua.

**J**Aineoaren conseju ezcutatua da,  
 Santu ascoren Jaiotza non, da  
 noiz izan zan, ez jaquitea. Ala Santa  
 Maria ceruco lore preciosa bezala, Ja-  
 incoac munduco Campo, edo Eleizara,

bere escutic bialdu zuen. Baña noiz, ta non, da onen Gurafoen berri ciertoric eztaquigu, ceren Maria aurpreciatuac, ez lurrecoa, baicic cerucoa guztiro izan bear zuen. Santaren Procesoetan jaquinã da, Cristau on, da onraduac, ta cerbait zuten Achurlari garbiac onen Gurafoac cirala. Ama Virginiaren devocioz, Maria Bateoan, izena eman cioten, eta graciazco Ponte, edo Iturritic, bere alaba bezala Virginiẽn Amac bere conturaberico artu zuen. Amac Jaincoaren escutic ceruraco señalatua bezala, bere alaba maitea artu, ta chit contuz, ta amorez bere bularrean aurgraciosoazi zuen.

2 Maria preciosa gorputzean aziaz cijoan guifa, bere Gurafoen, da beste en graciañ aurreratzen zan. Chiquichozanetic, bere Ama onac lenengo oracioac eracatli ciozcan; eta oricc icasteco naiera, ta berezco doaia zuen alabac. Arrazoiaren argui, edo usora etorri zanean. Jaincoaren bildur santaz bere biotzean sartu citzaion, eta Eleizaco oracioac, ta Cristau onac bear dituen gauzac, eta doctrina contuz, ta ederqui icastu cituen. Fede santuco Misterioac, eta ceru-

ceruco bidea obeto icaiteco, bere egem-  
 plo onarequin Amac Alabari Eleizaraco  
 bidea eracutſi cion, da berequin erama-  
 ten zuen: eta nola añ egoquia, ta one-  
 raco Jaincoac eguiña zan, chit pozic  
 Eleizetara joan oi zan. Lenengo Meza  
 fantua devocio guztiaz enzutera; eta  
 guero Dottina, ta Sermoietara. Onela  
 Cristau, edo Ama onac beren Alabac  
 aci, ta oitu bear dituzte.

3 Aurcho inocente Jaincoaren ef-  
 cogituac Eleizan icusten, da enzuten  
 zuen gucian, argui egunoro andiogoac  
 bere anima garbian sentitzen cituen: be-  
 re postura, modestia, ta inclinacio onac  
 asco laguntzen cioten. Maria añ devo-  
 cio andian Eleizan icustea bera, egem-  
 plo chit ederra, ta beguiratzen zuten  
 gucien mirarizco consueloa izan. San-  
 tnen ceruco Escola lurrean da Eleiza:  
 emen Jaincoaren doietzco arguiac, Mis-  
 terio, Sacramentu, ta Virtute gucien  
 lecioac artu cituen. Lur ondo apañdu  
 baten guisa, nola bere biotza prestatua  
 cencan, ceruco argui, ta virtuteac leia  
 fantuan Maria inocentearen anima eder-  
 rean sartzen ciran. Jaincoac gogo chit  
 bero bat eman cion bera ezagutzeco,  
 ta

ta aren Ontafun , ta beneficioacgatic amatzeco : eta bere Jabe Divinoa cembat gueiago ezagutzen , zuen ambat guei-ago billatu , ta amatu nai zuen.

4 Inclinacio santu oiec egunoroco egercicio , oracio , ta devocioaquin Sta. Mariaren anima garbian Espiritu Divinoren argui beroac irazaqui cituzten : eta oiec ecarri cioten fede bici bat , ceñean , cimendu seguruan bezala , Santidadearen sustraiac , loreac , eta frutuac garetatic fortu , ta añ ederqui jaiio , ta aziciran : eman cioten Esperanza firme bat , eta onerari , Ondafun gucietan bezala , bere Jaincoagan erregalatzen zan. ¡ Ah munduco ero baño utfac ! Santa Maria Doncella pobre gazteari beguira zaiozute , ta galde : ea cer aren Esperanzari saltatu citzaion ? Zuec ez bezala zori onecoa zan. Zuec lurreco gauza miserien artean , edo azpian beti gose , ta egarri , edo zuen biorza beñere contentu ezta , eta aizatu , ta banidade utfaren ondoren galdua dabil. Gure Santa Jaunaren confianzan , ceruan bezala , beti contentu , ta asea , guciz erregalatu bici zan.

5 Caridade , edo Virtute guztien ja-  
in-

inozco Erreguiña, Fede, ta Esperanzaren Coroa, Jaincoaren, da Gueide, edo Proximoaren amorio ederra da: eta onetan Santa bere Esposo Divinoac chit señalatua eguin zuen: aren biotzean Caridade onec cer oficio, ta cer milagroac eguin cituen, camporonz cerbait, nai, ta nai ez, aguertzen zan; baña nola Santa añ barrencoia, jssilla, ta beguiratua zan, Jaincoac bai, ta bestec inore orren berri etziequien. Alere gauza ciertoa da, Jaun amorosoac bere Esposa santa onetan atseguin andia beti artzen zuela, ta bere argui, fabore, ta erregalo Divinoaz betetzen zuela. Emendic bere toqui edo centrotic bezala, cetozen onen Eleizaco egoera luceac, ango egote-co modestia, ta sofegua, cernco contemplacio, ta Jaincoaren perfeccio, ta marabilletan biciro penlatzea, edo artibaten guisa, artobaturic an egotea: emendic Jesus bere Esposo maitearen Pasifico Misterio, edo Pauloetan guztia amorez urtu, ta negarrez defeguitea: emendic Ama santissimaren amorio gozoa, ta beste Santuen eguiazco devocioa, ta oriec bici santu batean imitazeco gogoa.



6 Gucien beguieran aguiri zanez, Egercio eder orien frutua gendeac baccusten, bada Doncella gazte santa baten egemploac berez joac bezala beti eman cituen. Echeric Eleizara, ta emendic echera baño beste bideric Sta. Mariac etziequien. Gurafoetan Jaincoari beguiratzen cion echean, da echeraco gauzetan: oiec beren Alaba chit unulla, chit obedientea, ta beti elcupecoa zuren: bere bician ez beguiric jaso, ez itzic atera, Gurafoen aurrean; baicen ondo aditu, ta aguintzen ciotena, isillic, ta chit gustoz eguin. Aciago edo andia zala, ta amari laguntzeco diña icusi zanean, echea gobernatzen ondo icasi, ta Ama onari beargai gucietan berac aurrea auzen cion: eta lan oriee Gurafoen gustora aire galantarequin zuzendu; ta Amaren guisa Alaba santa josten, ardazqueta, edo gozuetan chit gogotic aritzen zan. Bere ide, lagun edo adisquidequin jardun bear zuenean, chit egoqui, igoala, gracia onecoa, ta chit gusto emallea zan. Baña bestelaco jolas, edo bertiqueta, joco, ta dembora galtzeco peligroetatie chit igues cebillen. Jaunac bere Esposa maitea bezala, er-

retiro santuan nai zuen, da bereganon  
 amorez tiratzen zuen. Gucian cintzoa,  
 beguiratua, ta devota Jaincoac beret-  
 zat eguin zuen,

### BIGARREN §a.

SANTA MARIAREN BIGARREN ESTADUA,  
 edo Ezkontza ezqueroco Marabillac.

**G**Ure Santa Doncella gaztea ba-  
 zan ere, munduco eraque-  
 ria, ta banidadeeratic ignes beti, ta ur-  
 rui ibilli zan: Erreligioco erretiroan be-  
 zala, ez munduac arequin, da ez are  
 munduarequin cer icusitit etzaten: Ja-  
 incoac beretzat chit goiz, ta betico ar-  
 tu zuen. Virgiana santa onen prenda el-  
 cogituac, ta egercicio santuen egemplo-  
 ac guztien beguietan, ta aolan cebiltzan,  
 da icusten zutenen platicac ciran aren  
 marabillac, eta virtuteac contatzea. Be-  
 re demboraco gazteen artean Jaincoac  
 chit egoqui ederra eguin zuela, Auto-  
 re batec dio: ala Procesoetan ere aren  
 edertasuna afamatua da. Baña ori aza-  
 leco iduri utla zan: bere modestia vir-  
 ginalac ori gueiago lurtean ere alo, ta  
 apañt-

apañtzen zuen. Anima santa aren certu-  
go edertalun ezcutatua norc eñan deza-  
que? Nolerebait aguertzen zan; baña  
beti odeien artean bezala. Aingueru eder  
bat icustea zan Virginia miragarria au  
icustea:

2 Bere edadearen lorean Jaunaren  
sierva mairu au arquitzen zan: Guraso  
pobreñ umea; baña chit ondo ta gar-  
biro acia. Onen prenda señalatuac, ta  
ate guciago fantidade, ta virtuteac, no-  
la añ jaquiñac, eta estimatuac ciran. An-  
diecheetan ere ezagutzen zuten, da aren  
zale ciran. Onetan Sta. Mariari cego-  
quion suerte on bat Jaincoac aguertu  
cion: eta Guraso onen alaba bezala, o-  
ien vorondate, ta gusto osoarequin,  
Eche onradu batean serbitzen jarri zan:  
da bere obligacioai chit ederqui eran-  
zun cien: bere contuco gauzai cobru  
ondo emateco, ta guciai gustoa cum-  
plitzeco Jaincoaren gracia particulara  
zuen, ta guztia chit ondo cegoquion,  
edo escuetara, nai bezala, ceterquion.

3 Dembora aietaco Autoreac diote-  
nez, S. Isidro Achurlari guizon gazte  
famatua zan: beargai gucietaraco chit  
trebea, ta artaco jaio bezala, beregñ

cebillena. Madridco Jaun aberats baten  
 acienda, edo campoac bere contura ar-  
 tu, ta bearrean bacarric bici zan. Jaun  
 au seguru ere Joan de Bargas zan: eta  
 dirudienez, Sta. Maria Jaincoaren Don-  
 cella escogitua onec serbitzen bere e-  
 chean ceucan. Isidro, ta Maria nola añ  
 justuac, ta Jaincozco pare, alcarren ant-  
 zeco cabalac eiran, eta gende guztien  
 artean añ estimatuac, emendic Jauna-  
 ren vorondateco ordua etorri zanean,  
 bien Ezcontza santuraco bidea berez be-  
 zala idiQUI zan. Jaincoac bere santu mai-  
 te bien oneraco bere escutic bezala sua-  
 bidade andiarequin orien gauzac chit e-  
 derqui zuzendu cituen; eta modu one-  
 tan izandu zan gucia.

4 Ala Isidroren Nagusiac, nola alde  
 aietaco aren Lagun, da eguiazco adif-  
 quideac bacecusten ondo, cer neque go-  
 gorraren azpian, lagun on baten faltaz  
 Isidro bici zan. Santuari bezala guztia  
 ondo beguiratzen cioten, da chit asco  
 estimatzen zuten. Urte aietaco lanac, eta  
 nequeac igaro cituen; baña ecin ala ira-  
 ungo zuela cioten. Orrequin Nagusiac  
 batetic, eta adifquideac bestetic ondo ar-  
 tu, ta chit biciro adierazo cioten, et-

tadua artzea conveni cirzaiola. Santuari  
chit modu onean baiezcoa atera, ta Ja-  
incoaren sierva escogitu Mariac aren la-  
gun izan bear zuela, contentu andi ba-  
rean guelditu ciran.

5 Baña berrioren ori Doncella santari  
eman ciotenean, au bere modestiaz lorla-  
tu, ta arituric luzaro egon zan. Ezcontza  
ori ceruco gauza, ta conveniencia zala on-  
do cecuzan; baña alere epea cinzoro esca-  
tu zuen. Beñ da bertiz bere Gurafo, ta  
Aita espiritualarequin gauza orie begui-  
ratu, ta igaro cituen: ta are gueiago ta  
obeto bere Jaincoarequin, ta onen vo-  
rondatea ezagutu, ta Isidro santua bere  
Esposo artzea erabaqui zuen. Santu bi-  
en Desporioa, Jaincoaren, da bester-  
en gustora celebratu zan, S. Isidoren  
Bicitzan esan nuen moduan. Gure Jain-  
coac bere Eleiza Santan Ezcondu gu-  
cien biciera oneraco, ispillu eder au ifi-  
ni nai izan zuen. Ezcon berri santu oien  
eztaietan, orañogetaco zoraqueria, ase-  
ta bere, edo ordiqueriaric etzan, ta or-  
tic datozen beste libertade defonestoric,  
musica, canta, ta danza peligrozcoric  
ere. ez: ta oraño choralda gala zaleac  
bezala, gastu, ta costu andiric an et-  
zan,

zan, zor andiac eguin, da nic ondo da  
quidana, urte alcoren buruan, edo se-  
culan ez pagatzeco. Ezcontza santu o-  
netan moderacio, ta cristau modestia  
besteric icusi etzan.

6 Sta Maria, ta S. Isidro onela ez-  
condu, ta Jaincoa serbitzen bata bestes  
aren leian asi ciran; baña ceñ gogotic,  
ta cet devocio, ta amote lantuarquin,  
elatea erraz ezta. Aingueruen guisa  
ceruraco ezcondu biac lurtean bici ci-  
ran. Etziran bi, baizen chit bat. Biotz  
bat, eta anima bat, Escrituta Sagraduac  
dion bezala. Ceruco batalun, edo unio  
santu onetan beren burua, eta echea  
zuzentzen, beren dichazco pobrezan,  
baña chit garbico, ta poliqui asi ciran.  
Eche barraumbeco treñac Echandre  
berriac, ta campoco lan, da beargaiac  
Senariac, beren contura artu etuzten.  
Egunoroco beren orduac partitu, ta era  
eder, ta armonia lastu batean ifini et-  
tuzten, eta erregla oni beguiratu, ta be-  
ti jarraita cioten. Ala eche artan Jain-  
coac bere bendicio ugaria, ta Aingue-  
ruen paquea betico lastu zuen. Seculan  
etzan an aferretic, erriertatic; ez eta  
ezta baidacho bat ere, oraño ezcont-

za dichagabeco ascotan bezala ; eta batez ere plazaguizon , jocalari , edalea lenarra , ta mingañlucea emaztea ; eta biac Jaincoaren bildurgabeac , buru gaitoco , ta gaizqui sufrituac irteren badira.

7 Santa Mariac , eta S. Isidrocegunaren lenengo partea Jaincoari emateco concierto justu beticoa eguin , da oso gorde zuten. Biac chit goiztarrac ciran : eta beren gorputz necatuai descansu pulca bat , bear bezala eman , da egun sentian , edo lenago jaiqui oi ciran , da choriaquin batean Aingueru guisa , Jaina biotz guztic alabatzen astitzen ciran. Batetan biac , ta festetan elcarrequin beiti , Jaincoa adoratzera Eleizara joaten ciran. Egun andiac Confesio , Comunioraco artuac cituzten : eta gracia emanen luzaro an egon , ta beste Templo , ta devociozco Ermitetan ibilli , edo ceruan bezala guciétan egoten ciran. Gauza ciertoa da , Ama Virgiñaren Santuario famatuac , Almudena , ta Atochacoa Santu bien egunoroco , luzaro egoteco cerutoquiac ciradela . ; Cer-fabore , ta erregaloac ! Cer Argui ederraren Ama Santisimagan dic bere adisquide maite , ta anima garbi aiec. egunoro artzen , ta beren

ren biotzetan gozitzen eizuzten conlu-  
lo, ta atleguinac! Ontzia nola, ura ala.  
Nola lantuae beren animetan ontzi añ  
ondo garbituac, ta prestatuac ceuden,  
Ama Semeen Marabillac ala citaden.

8. Autore graveac diote. Egercicio  
fantu oietan Senar Emazteac beti bat  
citala, eta orobat ceruco fabore gucie-  
tan ere. Ala itz batean efan dezagun,  
Jaincoac S. Isidori eguin ciozcan, da  
efan ditugun fabore ta erregalo guciac,  
Sta. Mariac orobat artu cituela. Oni Me-  
za santuan, da Eleizetaco bere oracio,  
ta devocioetan, Jelu Cristo Sacerdote  
Divinoaren Meza, Aingueruen canta, ta  
musicarequin enzutea eman cion: oni  
Jaunac bere Temploetan icusten cituen  
irreverencia, escandalo, ta beste ofentae  
orobat revelatu, edo eracutsi ciozcan.  
Jaincoaren argui oietatic Santac aterat-  
zen zuen frutu señalatua zan, Jaun Di-  
vino Sacramentatuaren fede bici bat, eta  
bere biotzeco erreverenciatic al zuen an-  
diena, esperanza firme, ta amorio ira-  
zaqui bat. Orien oadoren Ama Virgi-  
ñaren, da Santuen eguiazco devocioa:  
eta orrequin anima santa au, bere Es-  
poso Divinoaren amarez lurreco traba-  
juac



juac ondo erapateco, biotzeco umikla-  
de, paciencia, ta sufrimentuaz armarzen  
zan, eta caridade, ta pobreaquico mi-  
sericordiaz, ta beste virtuteaz apañdu  
zan.

9 Jaincoac bere Santa au chit ecer-  
tacoa eguin zuen, da bere S. Hidrore-  
quin eguñic ceucan caridadezco con-  
ciertoa, pobrei beren aparteco Lapico,  
edo Elzea eguiteco, chit devocioz, ta  
Jaincoaren pobreenzat bezala, Ama Vir-  
ginaren, da Jesus onaren icenean da on-  
ran, Larumbat, edo Zapatuetan gar-  
buro, ta asco guztiarequin eguin, da po-  
brei ematen cien. Pobreen limosna one-  
tan Milagro asco ta miragarniac icusi ci-  
ran, S. Hidroren Bicitzan contatu ditu-  
dan bezala; baña onec, eta bere emaz-  
te santac guztian zuten beren partea.  
Biac Jaunaren vorondatea eguitean beti  
bat ciran; ala oracioan, nola beartean  
aren gusto divinoa, bacoitzac bere bi-  
detic, baña biac zuzen beti billatzen,  
da eguiten zuten. Sta. Mariac Jezu Cris-  
to bera bezala S. Hidro bere Bura, edo  
Laguna chit amorez guztian serbitzen  
zuen. Santua bearguille andi ta cintzoa  
zan, ala bere lurra manearzean, nola  
beste

beste lanetan : efan zan , iturriac , eta putzuac idiquitzeco ceruco doai , edo gracia ceucala : eta ur milagrosoaquin gaur daneraño fama andia utzi zuen.

10 Lan orietan Sta. Mariac bere oracioaquin , ta libre zanean bere elcuaquin pocic laguntzen cion. Santuaren alibioraco , berac janaria eramán , da campoan biac jaten zuten. Ez neguco otzac , edo izotzac , ez udaco bero irazaquin obra on oietan arzeratzen zuten. S. Isidro putzuetan lurra erabiltzean , Santac bere otarra , edo cestroan ori camporatzen zuen : da onela beste lanetan lagunduz batac bestearen carga arintzen zuen. ! O Jainaren gracia ! O Aingueruen atleguin andico bicimodua ! O Necazarienzat Ezcondu Santu bien cer ispillu eder da egemplo miragaria ! Santa Maria escogitua cerucopaquean echean cegoenean , edo campoetan cebillenean Jaincoaren beguietan , da presencian cebillen. Baña deabruac bien biciera santa écin icusi , ta S. Isidoren contra , len efan diran infernucolazoac , ta tentacioac alde'ascotata asmatu , ta armatu cituen. Orduan elaten ciran guezur , da testimonioetan ,

Santa beti bere S. Isidro requin omen zan.  
 O nolaco paciencia umillaz Jaincoari  
 area onra, eguia, ta paquea escatuco  
 cion! Oracioan bere Jaincoa, ta nai  
 zuen gucia bilatzen, da arquitzen zuen,  
 ala eheco erretiroan, nola bideetan ce-  
 billenean: jaincozco contemplacio chit  
 altuan arrobaturic campoetan ibilli oi  
 zan. Oracioan S. Isidrori, esan diran  
 Marabilletan beti lagundu cion.

· II Zori oneco Ezcondu santu oiei  
 Semecho bat Jaincoac eman cien, ta  
 Bateo santuan icena Joan eman bide cio-  
 ten. Ama Santac ceruco bendiciozco  
 frutua, ta Jaunac araco emana bezala,  
 chit contuz bere ori aci zuen, da ora-  
 cioarequin berriro bicia eman cion. Chi-  
 quia zala, ta alaoric ustegabe putzuan  
 erori, ta itozan. S. Isidro bere bearre-  
 tic orduan ceterren, ta Santa Maria ala  
 ta añ triste icusi, ta arequin batean ora-  
 cioan jarri zan, Jaunari biac beren se-  
 mea biciric escatzen ciotela: eta Jainco-  
 ac bereala aditu, ta seasca bigun batean  
 baletor bezala, gorano urac milagro  
 aci, ta Semea biciric artu zuten, eta  
 biotz guztitic Jaunari gracia eman ci-  
 ozcaten. Seme onen ganean gauza cier-

tonic, chit guchi daquigu. Nie arquieu  
dedana, az juenean etango det.

## IRUGARREN §a.

SANTA MARIAREN IRUGARREN ESTA-  
dua : Nola Senar Emazteac Castidadea  
gorde zuten.

1 **M**Iranizco Santuren batzuen, ba-  
ña guchi, edo contatuen ar-  
tean iculi da, Sta Mariac eta S. Isidro  
Espiritu Santuaren consejuz gobernatu-  
ric eguin zutena. Luzaro egemplo eder  
alco eman cituzten Ezcondu santu biac,  
ta lagun da ezagun anzo aietacoac arri-  
turic ceuden oien cerico bici modu, ta  
miranizco paque santiaz : eta onen ga-  
ñean bear dana esan degu. Baña orrez  
gñera, Santu biac Jaincoaren amore,  
ta santidade guztian gorago igo nai zu-  
ten : eta beren Jabe maitea biac, eta  
bacoitzac obeto, ta libreago serbitzeco,  
ta aren argui divinoarequin, Castidade  
garbian, Senide, edo Anaia Arrebac ba-  
ciran bezala, biac garbico bicitzeco ani-  
mo, ta consejoric santuena arru zuten.  
Emazte santac bere Isidroari, Santu an-

diari bezala gucian beguiratzen cion, da Jaunaren vorondatea seguru eguiteco, aren obediencian beti egon nai zuen. Batac bestea fede, erreipeto, ta amore santu garbi batequin estimatzen zuen.

2 Erri, edo Baserri ascotan beren bearrean Jaincoac lfidro, ta Maria erabili cituen, era beti biac alcarrequin. Jaunaren Providenciac au nai izan zuen, beren egemplo ederrac ematen, Milagro andiac eguiten, ta auzo aiecguciac santificatzen ceruco prodigio biren guita ibilli citezen. Dembora orietan, da Erri aietan Cofradia santa, ta orietaco egercicio chit piadoso asco, ta jaincozco Erregla ederraquin berrito jato, edo fundatu cituzten. Oriec ciran: Egun andietan Campotar guciac confesatzeco, ta comulgatzeco: guciac batean, edo elcarrequin beren barazcaria jateco: Ama Virginiaren Eleizan devociozco beren egercicioac Cofrade gitztiac egun, da ordu jaquiñetan eguiteco: caridadej santu, ta Jaunaren paquean beti bicitzeco, Ceruco Erregla oietatic frutu chit andia ateratzen zan, da Santu biac egunoro ta amorio andiangoaz irazaquinc, elpiritu, ta frutu ori guciago aurreratzen

zen zuten. Ori gucia obeto seguratzeco an auzoan beren pobrezatic lur pulca, edo acienda bat erosi zuten, da ori santu biac pocic, eta biotz guztitic, Ama Virgñaren Eleizari aguinda, ta eman cioten.

3 Egemplo piadoso onequin, da beren obra, ta conseju santuaquin beste ango, Achurlari onradu alco orretara chit animatu ciran: biciera berri sentu bat artzen zuten, limosnac eguiten ciuzten, da egercicioetaco asistenciae guztien devocioa chit biciro aien biotzetan berotzen zuen. Obra santu oiet Jaincozco leñale claro, ta aguirian icusten ciranac bezala, orañ ere badiraute: Santu oien memoria gozoa, Jaincoa alabatzeco beti bici da, ta berriro egunoro irizakitzen da. Onela amorezco prendac Ama Virgñari, ta aren Seme maiteari cerura bialdu ezquero, edoceñec dacus, cer ango farja, Jesus onaren, da bere Amaren beguietan da biotzetan Santuac mereci, ta arquiteco zuten. Orrelaco, ta guc esan al baño, beste obra santu goetan Ezcondu pare miragari Maria, ta Isidro beren devocio umillean jarduten zuten: eta emendic, edo orduan,

duan, Jaincoac, eta bere Amac gorago, ta berenganago jaso narizan ciuzten.

4 Santu biac Jaincoaren Misterio, ta gauzetan, Jetu Cristoren Paulo Divino, ta Ama Virginiareneran, devocio chit igoal, da berdin bat zuten: eta orrequin batean, beren biotz, ta animac amorio fantuari al eguin guztiaz biac agundac bezala, arenat bacarric bicitzeco, jaincozeco sugar argui beroaz irazaqui ciraden. Sta Maria maiteac Castidadea chit garbito, ta oforo gorderzeco deseio bicietan aurrea artu nai zuen, da Jaincoari biotz guztitic bere argui divinoa, ta gracia escatu, ta Confessorearequin gauzac toseguz irago, ta ondo beguiraturic erabaqui zan, da Voto santuan firme jarri zan. S. Ilidoren animaco berri ondo ciequien, ta guciaren contu oni eman cion, eta bien vorondare libre osoarequin heren sacrificio, ta confagracion andi beritocoi Jaunari eguin cioten. Demberada batean heren Echean Senideen guisa, edo lurrean ceruco Aingueruen guisa, biac chit ondo bicitu ciraui.

5 Gueroenean, nola Emazte santac  
Ama

Ama Virgíña bere Ama maite bacarzat  
 artu, ta serbitu nai zuen, Caraquizen  
 beraren Eleizaren ondoan biac zuten be-  
 ren Echecho bat, eta Isidro bere Es-  
 posa maitea ara eramán, ta Ama fan-  
 tísimari betico eman da urzi cion. San-  
 tua bere lanetan jarduteko Madrida iga-  
 ro zan. Sta Maria ceruco uscho ino-  
 cente baten guisa amoriozco bere egoac  
 guciz lasai, ta biciro zabaltzen bere ba-  
 cardade gozo artan así zan. Devocio an-  
 dico Ama chit eder, ta polit bat, be-  
 re Seme preciosa bendicioa emateko  
 moduan, besoetan duela, Eleiza artan  
 Jenagotic adoratzén zan: ta arrezquero  
 are gueiago, Santaren guzritzco devocio  
 paregabeagatic: Emen Ama Semequin  
 zuen bere gloria bicia: Jesus ederrac,  
 eta bere Amac Sta Maria beren maite-  
 ari ascotan izteguiten cioten. Beñ batac,  
 guero besteac erregalatzén zuten, da ce-  
 ruco izqueta, edo coloquio divinoac  
 cituzten. Bien amorez erre, urtu, ta de-  
 seguin, da beti ceruan cegoen.

6 Jesus divinoac, eta bere Ama  
 gozoac bai, ta beste inore eztaqui ce-  
 ru artan, iruren artean cer igaroco zan.  
 Santa onela guciz erregalatu Ama Se-  
 meen



meen amorioz zoratua bezala, bien betico contemplanco altuan bici zan, da beregandic irrendaco baten guifa, campo, ta bideetan ere arrobaturic angogendeac ropatzen zuten. Betico garbituaz bere Eleiza chitez garbia, eta al zuen apañduena ceucan. Ama Semeai lore ederrezco, presentecac bere amonoren señailean eguiten ciezen. Auzo aietan arguitaco limoia escatzen zuen; eta Ama Virgíña obeto apañdu, ta ederquiago iduquitzeo cer eguin etziequien, Santa ceruco glogian onela bici zan artean, deabruac lurtean guezurrezco bere trampac, eta sareac ezarri cituca aren contra. Orretaco, Jaincoac licencia eman, da auzo aietaco guizon gaistobatzuez baliatu zan. Oiec deabruac engañatu, ta S. Isidro Jaincoarequin bere bearrean arizan lecura joan, da Santuaren Bicitzan elan degun bezala, beñ batzuec, guero besteac, aren paquea inquietatzeco, elan cioten, aren Emaztea, fede gabe, angó artzai, ta unaiquin pauso charretan cebillela.

7 S. Isidro bere Emazte Santaren berri obeac cituen cerutic, ta baciequien, ceñ santa maitea zan. Besteac berriz Sataná-

tanafen guezur , ta iduripenaquin , cer  
 igarotzen zan etzecusten : onen itsuta-  
 suna , ta Jaincoaren ofensa Santuac hit  
 aguitu sentitu zuen. Lengo guezurac a-  
 ditu , ta orañgoaquin are penatuago ce-  
 goen : eta bere Nagusiac negarrez topa-  
 ru zuen. Cer zuen galdetu , ta guizon  
 aien testimonio faltoac contatu cioz-  
 can. Jaincoagana biurtu , ta biotz guz-  
 titic bere arguia elcatu cion , da ce-  
 ruco Milagro claroquin guciai eguia a-  
 guertzeco , Nagusia , ta guizon oriee  
 Emazte santa icustera eramian cituen.  
 Guztia lecu ezcutatu batean ceuden : eta  
 orra non Sta Maria beste alderic bere or-  
 duan ibai aldera cetorren : Zubiric et-  
 zan lecura allegatu zan , eta beguira  
 ceudenac , icusi zuten , nola olio ontzia  
 escu batean , ta arguia bestean cecarren,  
 da ibai bazterrean bere mantilla urtan  
 bota , cianatu , ta mantilla gañean , leor-  
 rean bezala , batere bustigabe ibaia iga-  
 ro zuen.

8 Santaren Milagro andi au beren  
 beguiz icusi , ta len añ itsuac ceudenac  
 arguitu , ta arrituric guelditu ciran. Gu-  
 re Jainco poderosoa alabatu , ta Sta Ma-  
 ria inocentari paquea seculaco eman cio-  
 ren,

ten. Ori guztia lenagotic ciequien S. Isidro umillac : bada beñ batean Maria, ta Isidro an bertan Ama Virginiac escutic biac ibaian igato cituen : eta egunoro, edo beti Santa ala iragotzen zala gauza jaquiña, ta publicoa eguin zan. Efan deguna, ta Autoreac diotena : Marabilla gucietan biac beti bat ciran. Beste batean campoan cendela, zacur batzuec erbicho bati cerraiozan, da arrapatzeco, edo itozeco zorian cecarten : beren piedadezco entrañaquin Santuac lastimatu ciran. Santac orduan : Isidro, efan cion, erbicho oni ez gaitzic eguitea, zacur oriei aguin zaiezu. Santuac, tolesgabe Mariac naizuena, zacurrai aguindu cien, da bertan arrituac bezala gueratu ciran. Santagana erbia joan zan, eta palacatu, ta etlajac joan ciranean, erbi gassoari Santu biac, ta libertadea pocic eman cioten.

9 Santa Mariaren piedade, ta ceruco inocencia au miragarria beti izanduzan, eta bere Senar Santuac ala ezagutu, ta aren onraraco, ta guztien fede on da estimacioraco Milagro andiaquin orien aurrean aguertu erazo zuen. Santa bere contemplacio, ta Marabillen artean,

tean, Jesus ona, ta bere Ama maitea  
 ferbitzen paquean luzaro bicitu zan. Dem-  
 bora orretan S. Isidro Madriden bici zans;  
 eta bat zuec diotenez, laroguet a amar,  
 edo amaica urtecoa, ta ceruraco ondo  
 eldua. Iaincoaren Bateoco gracia, ta ino-  
 cencian cegoen, eta Jaunac bere Adif-  
 quide maitea gloriaco bere Erreinora  
 eraman nai zuen. Enorzaco gaitzac, ta  
 ondo laburrac eman cion, da Sta Ma-  
 ria ceruco abisoarequin, Caraquiztic Ma-  
 drida arin joan, da esan al baño errei-  
 peto, ta cariño gueiagorequin, bear be-  
 zala, bere Isidro santu laztanari, Ana-  
 iane onenari bezala gucian lagundu cion.  
 Eleizaco Sacramentnac demboraz, ta  
 chit beregan cegoela artu, ta bere po-  
 brezaren testamentua Sta Mariaren aur-  
 rean eguin, da aren contura gucia ut-  
 zirie, esan guenduen moduan, Santuen  
 guila iltzan. Eleiza santaren piedadezco  
 oficio guztiae Senar Santuari eguin, da  
 Santa Ama Virginiaren bere ceru bacar-  
 rera biurtu zan. Biciac iraun cion arte-  
 an, bere Marabillazco egercicio, ta vir-  
 tute gucien mirarizco egemploetan dem-  
 bora gucia igaro zuen.



## LAUGARREN §a.

SANTA MARIAREN ALARGUNTZA, ERIT-  
otza prezioſoa, ta Milagroac.

I **L** Urrean zuen conſuelo, ta am-  
paro bacarra, edo Iſidro bere  
guztia ſta Mariari Jaincoac cerura era-  
man cion: eta beſte andreen negar, da  
ceremonia gueieguiac largaric, Joan be-  
re Semeari, diotenez, guztia, edo Iſi-  
droc aguindu zuena bereala eman cion.  
Lurreco artu emanetatic libre, ariñago  
Santa ceraronz igo zan. Madriden San-  
tu biac viſitatzen cituzten Eleizac, ta  
Ermitac, orduan amairu bide ciran.  
Atochaco Ama Virgiñaren Santuatio ja-  
quiña; ta Almudenaco, orañ Corteco  
Eleiza Naguſien, edo principal dana. Ar-  
rezquero Sta Mariac Caraquizen bacar-  
ric bici zala, alde aietan ciran Ama Vir-  
giñaren beſte Ermita aſcoren contua ar-  
tu zuen, da gucietan bere limofna, e-  
gemplo, ta prodigioaquin, gende gu-  
cien devocioa chit bicirotu, ta aurrera-  
tu zuen. Orietan berac ama Virgiñaren  
ſabore aſco gozatu, ta orandaño ceruco  
memoria gucienzat utzi zuen. 2

2 Egercicio santu , ta miragarri oie-  
 tan Jaincoaren ufatoitola baten guisa,  
 zori oneco bere erretiro , edo soleda-  
 dean , Matia lurrean , ceruan bacegoen  
 bezala , demborada batean bizi izan zan.  
 Baña Aingueruac , eta Cerutarrac , ta  
 are gueiago Jesus bere Espofoac , ta onen  
 Ama maiteac beren glorian icusteco a-  
 ren zaletu citan : eta anima santa onec,  
 lagun dichoso aien , da Jesus , ta bere  
 Amaren erregalozco mandatuquin suac,  
 eta garrac irazaqui , ta biotzetie amore  
 guciaren atzeneco bombonadac ematen  
 ari zan. Suspirio bacoitzean aren espiri-  
 tuac egaca bolatu nai zuen : eta amo-  
 ruzco miñ , edo gaitz gozoac artu zu-  
 en. Onec estutu , ta bere biotz guztitie,  
 bere guztiani , edo Ama Virginiari otle-  
 guin cion , ta bere anima santarequin  
 batean , bere Testamentuan Echecho , ta  
 lur pulca bat (ori zan Sta Mariac zuen  
 guztia ) utzi ciozcan. Eleizacoac iñoiz  
 ere baño devocio , argui , ta amore  
 guciagorequin eguin , ta bere Ama san-  
 tissimaren Eleizan enterratzea agundu  
 zuen. Ceruetaco Erreguina Ainguerua-  
 quin presente ceucala , ta aren gloria ce-  
 cucela , uso zuri eder baten guisa , bere  
 espiri-

espiritua aren elcuetan, ta Jesusen Biotzean eman zuen. Gorputz santuaren Relicarioa Ama Virgñarenzat betico gurratu zan, da an ceruco labore señalatu asco, ta Milagro andiac bere devotoai eguiten diezte.

3 Aita Daniel Papebroquioc seguratzzen du, Sta Mariaren Milagroac chit asco dirala: eta ori bera Santaren Procesoetan contatzen da. Benedicto Aita Santuac bere obretan, prodigio oien gañean alabanza chit andiac dacartzi: eta gure Aita Serranoc Santaren Bicitzan, orieci eta beste Marabilla andi asco contatzen ditu. Santa Maria chit berezquiro Bitarteco poderosa, ta milagrosa bere devotoen buruco miñ edo trabajuetan izandu da. Orrez gañera beste gaitz mota, ta eriotzaco peligro estuetan ere, chit probechu andico Milagro asco eguin izandu ditu. Santa preciosa onen Burua miragarizco veneracioan, Ama Virgñaren Aldarean, bere Sagrario eder batean beti egon da: eta Enriajetaco gendeac Proceso devotoetan, Santari bear eizutzen laboreac escaizera etorri oi ciran, baita ere aten betico Milagroen gracia, edo esquerrac ematera. Oieci

ecin contatu ala ciran, da Santa Maria-  
ren sepulturaco Lur putca bat gendeac  
eraman, da aien fede biciac, nai zuten  
gucia, alcanzaten cien.

4 Santa Maria de la Cabeza, edo  
Burucoa, esan oida; baña ez Santac, ta  
ez aren Gurafoac, orrelaco icengaña  
izandu zuten, Aita Santuac berac, ta  
besteac diotenez: eta Aldare artan ce-  
goen Baru Santuagatic icen ori gende-  
en devocioac eman cion. Onen Gorpurz,  
edo Reliquia santuac laureun urte, edo  
gueiangoan, Losa andi batequin estaliric  
egondu ciran. Ceruco errevelacio, ta  
aviso milagrosoac Jaincoac modu asco-  
tan ematen cituen: eta azquenic, Jau-  
naren fede, ta devocio guciz particular,  
ta bero batec gendeac irazaqui, ta mo-  
bitu cituen. Reliquiac aguertzece pres-  
tatu ciran: Losa jaso, ta Obia idiqui  
zan: Puntu artan ceruco usai bat añ  
suabe, ta gozoa Eleiza gucian banatu  
zan, non da gende an ceudenac, bir-  
reun da gueiango ciran, uste zuten, Pa-  
radisuan, edo glorian ceudela. Milagro  
andi onequin Jaunari gracia emanen, ta  
deadarrez guciac ari ciran: Orañ bai  
Santa Mariaten Reliquia gordeac aguert-  
zen



zen dirala. Contu, ta neque andiaz o-  
iee aguertzece cebiltzan, da Francisco  
Vergara Notario Apostolico bere de-  
votoari Santa gloriola aguertu citzaion,  
da non, da nola ceuden, guztia oni  
elan cion, eta ala milagro z idoro ciran.

5 Santaren Reliquiac chit garbi, zu-  
ri ederrac, guztia an icusi, ta adoratu  
cituzten, ta prodigio alco ordian icu-  
si ciran. Orietatie ezur zuri bat Religio-  
so bati eman cioten; baña onec fede ga-  
be elan zuen: Sinisten etzuela, ezur ori  
Santarena zala. Efan ori ondo costa cit-  
zaion. Gau erdian S. Isidro cerutic etor-  
ri, ta reprensio alerre bat eman cion,  
da elan, Santa Mariaren Reliquia zala  
ura, ta señaletzat, Santuac cecarren acu-  
llu puntaz becoquian golpe bat eman  
cion. Sustoz, ta penaz ill bear zuen; ba-  
ña beregan biurtu, ta Santaren faborez  
obeto arquite zan. Negarréz, ta deadar-  
rez fede biciarequin Reliquia adoratu  
zuen, ta Sta Mariari devocio andi bat  
artu cion. Beste guizon Staren devoto  
bat onen festa andi batera lasterrago joa-  
teagatic, Sta Maria uraren gañean pa-  
satzen zan lecutic, ur andiaquin sartu  
zan; baña ibai erdian zaldia ta bera itot-

zeco zorian urac eramam cituen. Erti  
 zuen guizonac, eta estu artan Sta. Ma-  
 riari chit biotzetic deitu cion; eta itsu-  
 itsuan Santac bertan beste aldera mila-  
 groz eramam, ta chit ondo arqutu zan.  
 Festan ceuden guztiaz icusten zutela, gen-  
 deai Milagro andi au contatu cien.

6 Nola Santa Maria, ta San Isidro  
 Jurrean añ bat, añ Onguilleac, añ pa-  
 quetsuac beti izandu citan, ala ceruan  
 ere orañ armonia orretan beren devo-  
 roenzat biac Onguille bat dira. Madrid-  
 co Vecino Pedro Mendozac urte bico,  
 ta bere consueloco alabacho bat zuens  
 baña pena chit andia ceuçan, ceren ca-  
 lentura gaisto batec, ta iltzeco bomi-  
 tuaquin eman cion, ta Medicuac erre-  
 medioric etzuten. Santa Mariaren Pro-  
 cesoetaco Fr. Domingo Mendozac one-  
 gana, ta S. Isidrogana obeto apelatu  
 zuen. Pedroc, eta Emaztreac Senar Emaz-  
 te Santuai promesa eguin cien, iltzen  
 cegoen alaba bici bazan, biaramonean,  
 S. Isidroren Capillara, Meza, ta libra  
 candelarequin eramango zutela. Aur et-  
 si ori Amac fede biciaz befoctan artu,  
 ta eramam, Meza enzun, ta bederatzi-  
 garren orduan candela acabatu, ta ber-

tan gaitzac acabatu ciran. Aurra graciae ematera bezala, berez, ta ariñ Santuaren Aldarera joan zan; eta ofasunan ondo gueratu zan. An cenden guciac aritunic Jaincoa Senar Emazte Santuetan alabatu zuten, ta Milagro añ andia publicatu, ta Santu bien chit devotoac guelditu ciran.

7 Catalina Urquizo, Joan de Zarateren Alarguna, bere argaltasunez altu batetic erori, ta golpeac elbarritu, ta ifuturic gueratu zan. Ala bearrez erori berriz, ta iltzeco etfiric cegoen. Santa Mariaren Milagroac aditu, ta oni, ta bere Esposo S. Isidrori erremedioa elcaturu cien. Chit alivio andia sentitu, ta devocioa ere bicitu zan. Biai berriz biorzetitic deitu, ta ofasuna, ta gorputzeco libertade osoa artu, ta juramentuaz Milagro au declaratu zuen: bai ta bere Alaba Antonia de Zarategan icusi zan Milagroa ere. Au gorputzeco anditsua gaitso batzuequin peligro andian cegoela, Ama piadosac bezala, bere Alabaren fabore, Sta Maria, ta S. Isidroga na biurtu, ta ofasuna elcaturu cien. Berezegabe puntu artan Alaba ofasuna, ta ndar osoaquin arqutu zan: eta Santuen  
de.

'Amabostgarren §. S. Isidroren Gor- putz santu osoa.	81
'Amateigarren §. S. Isidroren onra Jaincoac gordea.	85
'Amazazpigarren §. S. Isidroren bef- te faboreac.	92

### SANTA MARIAREN BICITZA.

<b>L</b> enengo §. Sta Mariaren jaiotza, ta aciera santua.	99
Bigarren §. Sta Mariaren Ezcontza, bigarren Estadua:	105
Irugarren §. Sta Mariaren irugarren Estadua.	115
Laugarren §. Sta Mariaren laugar- ren Estadua.	124
Bostgarren §. S. Illanen Berri onac.	133



Eguiaten adisquideai, guezur, edo  
faltan erremedioa.

**P** Ag. 22. pobreen, da aberatsen.

P. 31. de elazu : da.

P. 43. eracusten- guciat- ta elan cien.

P. 45. Nic, elazu : ni nere.

P. 56. jarduteco. 57. Ermitaronz.

P. 57. jaiqui, elazu : garzqui.

P. 72. galanqui. 73. Santua.

P. 74. prestoric, elazu : puestoric.

P. 75. prestoric, elazu : puestoric.

P. 83. ez atzera.

P. 85. eraqui eriaz, elazu, eraqueriaz.

P. 91. gabac, gabaz.

P. 102. gatetatic, elazu gaztetatic.

P. 102. baño, elazu : ero baño utlac.

P. 112. asco, elazu : asco.

P. 121. aguit, elazu aguitz.

Ala libru onetan, nola besteetan,  
guezur, edo faltac erremediarzeco, ira-  
curri bearda beti eguiaren argui au. Or-  
ri edo oja bacoitza iracurteagatic In-  
dulgencia jaquiñac dirade.

# IDOROGARRIA, EDO INDICEA

<b>L</b> Enengo §. Santuen Berri onac.	2
Bigarren §. Santu edo Predesti- natuen Eralda.	8
Irugarren §. S. Isidro Achurlariaren Bicitza.	14
Laugarren §. S. Isidroren Pobreza, ta Umildadea.	19
Bostgarren §. S. Isidroren , da San- ta Mariaren Ezcontza.	23
Seigarren §. S. Isidroren Piedadea, ta Devocioa.	27
Zazpigarren §. Santuaren guciaqui- co Piedadea.	35
Zortzigarren §. Egazti, ta Chingur- riatico S. Isidroren Piedadea.	41
Bederatzigarren §. S. Isidroren Pa- ciencia.	47
Amargarren §. Santuaren contraco deabruaren al eguiñaz.	55
Amaicagarren §. S. Isidroren Eriot- za preciofoa.	60
Amabigarren §. S. Isidroren Traf- lacioco Marabillac.	66
Amairugarren §. S. Isidroren Mila- groac.	70
Amalaugarren §. S. Isidroren Cofra- dia, ta fiboreac.	76







